<b>BILTEGIGAILUAK</b>	
Kontroladorea	BUS LOKALA, UltraDMA
Disko gogorra	UltraDMA: 2,1 Gb
Barruko disketera	3,5 eta 1,44 Mb
<b>PERIFERIKOAK</b>	
	Gaztelerazko teklatura
	Sagu bateragarria, Microsoft
<b>KIT MULTIMEDIA</b>	
	CD-ROM irakurgailua IDE 24x
	Sound Blaster doinu-txartela, 16 bit
	Bi aurikular, mikrofono eta guzti.
<b>SISTEMA ERAGILEA</b>	
	MS WINDOWS 95 lizentzia, eskuliburu, CD-ROM eta guzti.
<b>SOFTWAREA</b>	
	MS OFFICE 97 PRO EDUCACIÓN, CD-ROMarekin aurreinstalatua ikas-tetxe bakoitzean
<b>BERMEA</b>	
	Urte bete, in situ

#### HEZKUNTZAKO INPRIMAGAILU OINARRIZKOA

Gehieneko prezioa: 40.000 PTA.

53 hezkuntzako inprimagailu oinarrizko. Lerroa, 13380-2, guztira: 2.120.000PTA

Lastertasuna	4 ppm
Bereizmena	600x600
Sarrera-bandeja	100 orri DIN A4
Kontrolatzaileak	MS-DOS eta Windows
Ate paraleloa	1, Centronics IEEE 1284-B
Lan-zama	1000 orrialde hileko
Kablea	Korronterako kablea

#### MULTIPLEXADORE AUTOMATIKOAK

Gehieneko prezioa: 10.000 PTA.

53 Multiplexadore automatiko. Lerroa, 13380-2, guztira: 530.000PTA

Sarrerak	25 pin-eko 4
Irteera	25 pin-eko 1
Mota	Automatikoa, ez du arretarik behar.
Kableak	4 kable, PCak multiplexadorearekin lotzeko adina luze
Inprimagailurako kable paralelo bat, Centroncis, 3 m.	

#### HEZKUNTZAKO ESKANER OINARRIZKOA

Gehieneko prezioa: 40.000 PTA.

23 hezkuntzako eskaner oinarrizko. Lerroa, 13380-2, guztira: 920.000 PTA

Mota	Mahai gainekoa, laua. Z /B eta kol.
Neurria	DIN A4
Bereizmena	300 ppp
Kolorea	24 bit



Irakurtzeko sekuentzia	Iragaitte bakarreko azterketa
Lotura-interfazeak	SCSI-2 barne, edo EPP portua
Softwarea	Irudiak berrukitzeko softwarea
Kontrolatzaileak	Windows 95
Kableak	CPUra eta sarera lotzekoak

## “Irakasleen prestakuntza jarduerak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak “Irakasleen prestakuntza jarduerak” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 14an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “Irakasleen prestakuntza jarduerak” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Aurrekontu lerro honen bidez ordaintzen dira, alde batetik, Irakasleen Prestakuntzarako

Urteko Planean aurreikusitako prestakuntza jarduerak antolatzeak eragiten dituen gastuak eta, bestetik, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari atxikitako pertsonen Nafarroako Foru Komunitateaz kanpo antolatzen diren prestakuntza jardueretan partehartzeko gastuak.

2. Egin diren bi galderei dagokienez, ondoko taulan datoz, 1997/98 Prestakuntza Planaren arabera, “Irakasleen prestakuntza jarduerak” kontusailako 13420-5 aurrekontu lerroaren kargura 1998. urtean zehar antolatu diren prestakuntza jarduera guztien xehetasunak, hala nola jarduera horietako bakoitzarentzat hitzartutako zenbatekoak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

41520-2266-4231 kontusaila, “Irakasleen prestakuntza jarduerak” - 13420-5 Lerroa  
1998 urtea

Jardueraren izena	Hitzartutakoa
Curso Modular en F.O.L. Profesorado de Ciclos	636.000 pts
Ikastaroa: “Modular en F.O.L.”. Zikloetako irakasleak	636.000 PTA
Ikastaroa: “Metodología y elaboración de un proyecto empresarial”	720.000 PTA
Prestakuntza ekintza: “Actividades concertadas”	1.000.000 PTA
Ikastaroa: “Programación en C”	1.130.000 PTA
Ikastaroa: “Windows NT Server 4.0 Administrador y Usuario”	1.622.000 PTA
Prestakuntza ekintza: “Seminarios permanentes”	1.000.000 PTA
“Evaluación en los ciclos formativos” jardunaldiak	310.000 PTA
Hezkuntza ikastetxeetako ebaluazioari buruzko ikastaroa, 2. saioa	110.000 PTA

Jardueraren izena	Hitzartutakoa
CABRI-GEOMETRE ikastaroa Tuterako BHIIn	93.780 PTA
4 mintegi: "Desarrollo evolutivo y prevención de los transtornos en las etapas de Infantil y Primaria y en la adolescencia".	994.280 PTA
CREENAko irakasle batek eta orientatzaile batek prestakuntza ikastaro batean parte hartzea Madrilen	168.360 PTA
Ikastaroa: "El currículo de Física y Química en los Bachilleratos LOGSE"	833.680 PTA
Ikastaroa: "Didáctica de la clase colectiva en relación con el P.C.C."	369.000 PTA
"Análisis Musical" ikastaroko urtarrila-ekaina bitarteko gastua	568.000 PTA
"La Iglesia: XX siglos de historia" ikastaroko urtarrila-ekaina bitarteko gastua	1.330.650 PTA
Ikastaroa: "Nuevos materiales y técnicas de aplicación en el área tecnológica"	648.000 PTA
Ikastaroa: "Leer, escribir, escuchar y hablar en el aula"	1.028.000 PTA
Ikastaroa: "La Dirección de Centros Educativos"	2.000.000 PTA
Ikastaroa: "Capacitación lingüística de Inglés, Nivel II"	904.000 PTA
Frantsesezko eta ingelesezko 8 elkarrizketa-talde, urtarrila-ekaina bitarteko gastua	1.025.750 PTA
Frantsesezko elkarrizketa-talde bat, urtarrila-ekaina bitarteko gastua	252.000 PTA
Ingelesezko 2 elkarrizketa-talde bat, urtarrila-ekaina bitarteko gastua	252.000 PTA
"Curso de Lengua Inglesa" ikastaroko urtarrila-ekaina bitarteko gastua	110.000 PTA
Ingelesezko elkarrizketa-taldea, I eta II. mailak, ILZ Iruña	262.000 PTA
"Conversación en Inglés" (erdi mailakoa eta aurreratua)	74.000 PTA
"Capacitación lingüística de Francés" ikastaroko urtarrila-ekaina bitarteko gastua	698.000 PTA
1997/98 berrikuntza proiektuak, 1998 urterako gastua	795.000 PTA
Ikastaroa: "Los programas integrados de aprendizaje"	256.424 PTA
Ikastaroa: "Recursos y problemáticas ambientales de Navarra"	276.000 PTA
Luis Iza ikuskatzaileak prestakuntza ikastaro batean hartu du parte, Bartzelonan	140.755 PTA
Ikastaroa: "Danzas del folklore español"	405.000 PTA
Haur Hezkuntzako 14 mintegi	4.300.000 PTA
"El cálculo y el álgebra desde la óptica del derive", 2 ikastaro	669.500 PTA
Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuko 3 pertsona lan bilera batean izatea Arrasaten	29.500 PTA
Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eta Helduen Hezkuntzako 28 mintegi	6.000.000 PTA
Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 26 modulu	2.600.000 PTA
Hezkuntza Bereziko 5 mintegi	2.000.000 PTA
Ikastaroa: "Métodos clásicos de Iniciación Musical"	330.000 PTA
Ikastaroa: "Métodos clásicos de Iniciación Musical: Kodaly y su aplicación en España"	330.000 PTA
"Iniciación al Lenguaje Musical II" ikastaroko urtarrila-otsaila bitarteko gastua	178.000 PTA
"Lenguaje Musical I" ikastaroko urtarrila-ekaina bitarteko gastua	178.000 PTA
Informazio saio batzuk Irakasleentzako Laguntza Zentro guztietan	500.000 PTA
Asociación de Profesores de Español "Caro Baroja"rekin lankidetzatza	85.000 PTA
Ikastaroa: "Didáctica de la Literatura Infantil"	238.000 PTA
"Curso de Internet"	540.000 PTA
Irakasleen prestakuntzarako banakako laguntzen lehen adjudikazioa, 1997/98 ikasturtea	1.321.210 PTA
Ikastaroa: "La expresión corporal en el área de Educación Física en la Enseñanza Obligatoria"	295.800 PTA
Ikastaroa: "El aula como indicador en la resolución de problemas de comportamiento en la Enseñanza Secundaria"	309.600 PTA
Ikastaroa: "Diseño Gráfico"	281.000 PTA
"Seminario Interuniversitario de Teoría de la Educación" delakoarekin lankidetzatza	368.451 PTA
"Formatos gráficos, multimedia y Clic", 5 ikastaro	1.260.000 PTA

Jardueraren izena	Hitzartutakoa
"Incorporación de la Informática al currículo" 37 ikastaro	2.025.000 PTA
"Iniciación a la Informática" 20 ikastaro	4.235.000 PTA
"Ciencia en Internet" 3 ikastaro	410.804 PTA
"Producción de textos escritos en Primaria" lan taldea	75.000 PTA
"Diseño del Proyecto Curricular en el área de Conocimiento del Medio" lan talde	20.000 PTA
Ikastaroa: "Iniciación al Diseño Gráfico"	415.800 PTA
"Impostación de la voz", 2 ikastaro Tuterako ILZn	316.400 PTA
DBHko 2. zikloko gutxieneko helburu eta edukien programazioari buruzko jardunaldiak laguntzeko materialen azterketa, balorazioa eta txostena	6.250.000 PTA
"Programación de objetivos y contenidos mínimos para el 2º ciclo de la ESO" jardunaldiak ospatz. baim.	7.000.000 PTA
Ikastaroa: "Las habilidades motrices en el Área de Educación Física de Educación Primaria"	261.286 PTA
Pedagogi Berrikuntzako Zerbitzuari atxikitako zenbait pertsonak parte hartzea	
"VIII Congreso de INFAD" jardunaldietan	137.420 PTA
"Curso de Visual Basic"	415.000 PTA
Ikastaroa: "Diseño Gráfico" Tuterako ETIn	333.252 PTA
Jardueraren izena	Hitzartutakoa
CREENAko profesional batek prestakuntza ikastaro batean parte hartzea Zaragozan	32.304 PTA
Ikastaroa: "Probabilidad y estadística en el Bachillerato"	254.172 PTA
Ikastaroa: "Técnicas con materiales blandos I: textil"	240.000 PTA
Ikastaroa: "La conservación de la naturaleza en Navarra"	283.500 PTA
"Itinerarios Industriales I: Materiales Plásticos. Zona 3" (Erribera eta Zaragoza)	85.000 PTA
Ikastaroa: "Desarrollo personal y salud"	414.000 PTA
Ikastaroa: "Autocad Ver 14 3D"	740.000 PTA
Hezkuntza Zentroetako ebaluazioari buruzko ikastaroa, 3. saioa	110.000 PTA
Dramatizazioko eta gorputz adierazpeneko VI tailerra	395.000 PTA
Ikastaroa: "El deporte de orientación como medio educativo en la Ed. Física"	260.800 PTA
Ikastaroa: "Las habilidades motrices en el área de Ed. Física en la Enseñanza Primaria"	252.240 PTA
Ikastaroa: "Evaluación en la Educación Infantil"	285.704 PTA
Ikus-entzunezkoei buruzko zenbait ikastarotarako baim.	1.925.000 PTA
Batxilergoa aurkezteko jardunaldiak	200.000 PTA
Ikastaroa: "Temática de calidad y Proy. Pedagógico de los CAP's".	514.000 PTA
Ikastaroa: "El asesoramiento psicopedagógico en el contexto escolar: la conducción de grupos de trabajo"	149.000 PTA
Irakasleen prestakuntzarako banakako laguntzen bigarren adjudikazioa, 1997/98 ikasturtea	612.857 PTA
Jornadas "La educación en creatividad y valores: integración en el currículo escolar"	414.264 PTA
Bukaerako ordainketa "Programación objetivos y contenidos mínimos para el 2º Ciclo de la ESO" jardunaldietako materialen autoreei	6.250.000 PTA
OLlko irakasleen prestakuntzako ekintzak	500.000 PTA
"Autómatas Siemens y transición S5 a S7" oinarritzko ikastaroa	800.000 PTA
Ikastaroa: "Conducción de actividades físico deportivas"	500.000 PTA
Ikastaroa: "Equipos audiovisuales para electrónica de consumo"	1.060.000 PTA
1997 urtean sustatu jarduerengatik sortutako gastuak	9.510.980 PTA
Hitzartutakoa, guztira	89.510.523 PTA

## “Erregadio berrietarako edo direnak hobetzeko dirulaguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Andrés Basterra Layana Foru Parlamentario jaunak “Erregadio berrietarako edo direnak hobetzeko dirulaguntzak” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 14an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeko Andrés Basterra Layana jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Erregadio berrietarako edo direnak hobetzeko dirulaguntzak” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Indarrean dagoen Aurrekontu Proiektuaren arabera, “Erregadio berrietarako edo direnak hobetzeko dirulaguntzak” izeneko 72230-7400-5321 kontusailak, 97084-4 zenbakiko lerroari dagokionak, 1.400.000.000 pezeta jaso behar ditu.

Gaur egun, kontusail horretatik 923.840.413 pezeta hitzartuta, eta jadanik 364.562.490 pezeta eman dira, egindako edo egingo diren inbertsioetarako. Hona hemen herriak: Caparroso-Santacara inguruak, Viana-Tamarigal, Beire, Zarrakaztelu, Funes-La Castellana, Sotos, Zabala-Olmos-Arenal de Santacara-Melida, Balsilla Marín (Caparroso) eta SAT Valcaldera.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## Agenda 2000 aplikatzearen ondorioei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Agenda 2000 aplikatzearen ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 14an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Agenda 2000” aplikatzearen ondorioei buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

Foru Komunitatean Agenda 2000 aplikatzearen ondorioei buruzko aurreikuspenak egiteko oso goiz da oraindik, hain zuzen ere Agenda 2000 gauzatu edo garatzen duten erregelamenduen proiektuen tramitazioan –Batzordeak iragan martxoan aurkeztu zituen tramitazioan– eta, zehazkiago, egitura fondoei buruzko xedapen orokorrak ezartzen dituen erregelamendurenean, Batzordea oraindik ez da hasi edukiak sakonki negoziatzen Elkarteko estatuekin. Erregelamenduaren lehen irakurketa egin da, eta Batzordeak Elkartekideen jarreraren berri jaso du. Jarrera hauek zenbait kasutan testuaren aldaketa garrantzitsuak ekar ditzakete, baina, eskura dugun informazioaren arabera, testuaren negoziazioa oraindik ez da berez hasi.

Aurrez adierazitakoaren ondorioz, testua onartuta ez badago, hautagarritasun irizpideak ere ez daude finkatuta, batez ere beren egoeragatik

Nafarroa uki dezaketenak, zehazkiago, 2. Helburuaren hautagarritasun irizpideak.

Egutegia dela eta, Cardiff-eko Kontseilutik atera diren aurreikuspenek ezartzen dute Erregelamenduak Alemaniaren agintealdiaren erdialdean (99ko martxoan) burutu behar den ezohiko Kontseilu batean onartuko direla, eta nolahi ere Europako Parlamentuko hauteskunderen prozesuari hasiera eman baino lehen.

Hori abiapuntutzat hartuz, Batzordeak 2. Helburu berriko zonak hautatzeko ezarritako egutegiak aurreikusten du hautespen hori, Batzordeak Elkartekideekin bidezkoak jotzen dituen negoziazioak burutu ondoren, 1999. urteko urrian egitea.

Gobernua prozesu osoaren jarraipena egiten ari da eta beroni buruzko informazioa jasotzen du Ekonomi eta Ogasun Ministerioaren bitartez, honen Aurrekontuen Azterketa eta Programaziorako Zuzendaritza Nagusia izanzen baita 1 eta 2. Helburu berriei loturik dagoen guztia koordinatuko duena eta, jakina, Nafarroa 2. Helburu berrian sartzen ahaleginduko dena.

2. Helburu berriari dagokionez, zonakatu baino lehen eman beharreko urratsa eskualde-pizgarrien mapa mugatzea da, Batzordearen jarrerekin eskualde-pizgarrien mapen eta helburu-mapen arteko kohesioa eskatzen dutelako, eta hori Minis-

terioaren eta autonomia erkidegoen arteko elkarriketa batean burutuko da berehala.

Eskualde-pizgarriak direla eta, Espainiak bere biztanleriaren %77,2 barne hartuta du (%54,3 92-3.a artikulua bidetik eta %22,9 92-3.c artikulua bidetik), baina Batzordeak portzentaia hauek berriki ditzake Eurostat-ek urriaren 15ean eskaintzen dituen datuak ezagutu ondoren.

Portzentaia honen gainean edo, hala dagokionean, berriki portzentaia gainean, eta 92-3 a) artikuluan zehazten den salbuespenaren automatismoa kontuan izanik, helburu-mapan sartu aurreko urrats gisa, pizgarri-mapa diseinatu da 92-3 c) artikuluan zehazten den salbuespenari dagokionez, hau baita Nafarroa ukitzen duena, eta hori guztia eskualde-xedeko estatu-laguntzei buruzko zuzentzarauetan ezarrita dagoena eta eskualde-politikari eta eskumen-politikari buruzko Jakinarazpena kontuan izanik, bere kontzentrazio eta kohesioaren gehikuntza aurreikusten baita.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 11n

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: Jose María Aracama Yoldi

## “Irakasleen laguntza zentroak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak “Irakasleen laguntza zentroak” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du

“Irakasleen laguntza zentroak” izeneko 13440-0 aurrekontu lerroaren betetze mailari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1. Aurrekontu lerro horren bidez ordaintzen dira, alde batetik, ILZen esparruetako hezkuntza zentroen (lan taldeak, koordinazio mintegiak, irakaskuntza esperientziak elkarri trukatzeko jardunaldiak, iraupen txikiko ikastaroak, eta abar) eskariz, ILZek antolatzen dituzten prestakuntza jarduerengatik sortzen diren gastuak, eta, bestalde, ILZetako zuzendari eta aholkulariak Nafarroako Foru Komunitateaz kanpoko prestakuntza jardueretara joatetik sortzen direnak.

2. Azpimarratu behar da, gaurdaino, heziketa zentroek edo irakasle taldeek eskatuz ILZek, jar-

duerak antolatzearen, aurkeztu dituzten eskaera guztiek izan dutela erantzuna.

3. Gaurdaino sustatu diren jardueren zerrenda eta horietan hitzartu diren zenbatekoak ondoko taulan doaz:

Zk	Jardueraren izena	Hitzartutakoa
1	“La enseñanza del Euskara en el Modelo A” koordinazio mintegia	400.000
2	“Logopedia y Respuesta Educativa” koordinazio mintegia	210.000
3	“Escuelas Rurales: Primaria” koordinazio mintegia	140.000
4	“Escuelas Rurales: Infantil” koordinazio mintegia	100.000
5	“Educación Física” koordinazio mintegia	75.000
6	Elkarrizketa taldea: frantsesa	155.000
7	Lan taldea: “Los Medios Audiovisuales como Recurso en el Aula”	80.000
8	Ikastaroa: “Disortografías, disgrafías y dislexias: su normalización escolar”	215.000
9	Lan taldeak: “TeleCAP” (4 talde)	205.000
10	“Escuelas Unitarias de Bortziri” koordinazio mintegia	300.000
11	“Escuelas Unitarias de Maldaerreka” koordinazio mintegia	70.000
12	“Escuelas Unitarias de Baztán” koordinazio mintegia	225.000
13	“Elaboración del PEC” mintegia	300.000
14	“Videoconferencia: La utilización de las NN.TT. para favorecer el conocimiento y la relación con otros pueblos y culturas” lan taldea	100.000
15	“Grupo de Trabajo de Música” lan taldea	65.000
16	“Grupo de Trabajo de Educación Física” lan taldea	160.000
17	“Logopedia y respuesta educativa” koordinazio mintegia	50.000
18	Esperientzia Didaktikoei buruzko Jardunaldiak Lekarozen	250.000
19	“Sexualitatea eta afektibitatea nerabeen artean” lan taldea	30.000
20	“Grupo de Música de Primaria” lan taldea	350.000
21	“Elaboración de Unidades de programación” lan taldea	75.000
22	“Proyecto Empresarial” lan taldea	105.000
23	“Tratamiento de la diversidad en el aula de Inglés” lan taldea	100.000
24	“Análisis de la Programación en Educación Física/Primaria” lan taldea	70.000
25	“El aprendizaje de la lectoescritura desde el constructivismo” lan taldea	70.000
26	“Coordinación de logopedas de la zona de Lumbier” lan taldea	125.000
27	“Impostación de la voz y relajación” lan taldea	75.000
28	“Informatika Aztertzen Sakonduz” lan taldea	240.000
29	“Elaboración Materiales tipo Artigal” lan taldea	50.000
30	“Euskera Lantzen Egoera Funtzionalen Bitartez” lan taldea	65.000
31	“Programas de Situaciones Comunicativas. Modelo A” lan taldea	80.000
32	Excel eta Internet ikastaroa	100.000
33	Informatikako hasierako ikastaroa	110.000
34	Elkarriketza taldeak, ingelesa/frantsesa	454.000
35	Windows 95 ikastaroa	100.000
36	Word-en eta Excel-en sakontzeko ikastaroa	100.000
37	Informatika Sarearen erabiltzailea	125.000
38	“Escuelas Rurales” koordinazio mintegia	75.000
39	“Profesores Educación Musical Primaria” koordinazio mintegia	55.000
40	“Profesorado de Euskera - Modelo A” koordinazio mintegia	260.000
41	“El juego en Educación Física de Primaria” mintegia	45.000

Zk	Jardueraren izena	Hitzartutakoa
42	"Lectoescritura bajo el enfoque constructivista" lan taldea	25.000
43	"La Biblioteca Escolar en los Centros Educativos" ikastaroa	325.000
44	"Grupo de Trabajo de Música" lan taldea	25.000
45	"Grupo de Trabajo de Inglés" lan taldea	125.000
46	"Grupo de Trabajo de Euskara" lan taldea	90.000
47	"Iniciación Profesional. Transición a la vida adulta" mintegi iraunkorra	200.000
48	"Impostación de la voz" ikastaroa	120.000
49	Gelako Esperientziei buruzko III. topaketak	250.000
50	"El uso de Diferentes tipos de texto en el aula de Infantil" informazio saioa	65.000
51	"El educador como agente de cambio en los problemas de comportamiento en la adolescencia" ikastaroa	159.000

5. Hona ILZetako aholkulariek eta zuzendariek Foru Komunitatetik kanpora egindako bidaiak eta hitzartutako zenbatekoak:

Zk	Parte hartzailea	Hitzartutakoa
1	L. Vergaraechea (ILZ Iruña) - Madril	33.000
2	Maite Goicoechea eta Patxi Sierra (ILZ Iruña) - Arrasate	22.560
3	L. Vergaraechea (ILZ Iruña) - Bartzelona	88.500
4	I. Corcín (ILZ Tuter) eta M. Moreno (ILZ Iruña) - Arrasate	23.800
5	L. Coloma (ILZ Tuter) - Arrasate	7.500
Zk.	Parte hartzailea	Hitzartutakoa
6	M.A. Morrás (ILZ Lizarra) - Madril	71.073
7	J. Floristán y P. Jiménez (ILZ Tuter) - Zaragoza	94.712
8	Haur-aholkulariak (ILZ guztiak) - Vigo	249.178
9	Patxi Sierra (ILZ Iruña) - Expolingua/Madril	66.492
10	J. Bergasa (ILZ Iruña) - Jornadas Granada F.E.S.P.M.	148.000
11	M. De Simón (ILZ Iruña) - A Coruña	115.000
12	S. Sara (U.T. ILZ) J Ibáñez (NN.TT.) J. Olejua (ILZ Lizarra) - Bilbo	24.289
13	M.J. Casadamón (ILZ Lizarra) - Arrasate	
	J.M. Iriarte (ILZ Tafalla) - Bartzelona	105.033

Hitzartutakoa guztira, aurrekontu lerroa:

Azalpena	Hitzartutakoa
ILZ Lizarra	1.580.000
ILZ Lekaroz	1.550.000
ILZ Iruña	2.394.000
ILZ Tafalla	785.000
ILZ Tuter	1.034.000
ILZ Aholkularien eta Zuzend. bidaiak	1.049.137
Hitzartutakoa, guztira	8.392.137

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **“Ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak “Ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “Ikastetxe publikoetan eskolaz kanpoko jarduerak antolatzea” kontusailaren betetze mailari

buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

Burututako programak:	Hitzartutakoa
Olinpiada kimikoa	50.000 pezeta
Olinpiada matematikoa	350.000 pezeta
Musika entzunaldiak	1.054.425 pezeta
Solas laguntzaileak	66.000 pezeta
Eskolaz kanpoko ekitaldiak antolatzeko laguntzarako deialdia (martxoaren 31ko 364/98 eta 365/98 Ebazpenak)	33.550.000 pezeta

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 16an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **“Oteiza Fundazioaren Etxe Museoa. Inbertsioak eta gastuak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak “Oteiza Fundazioaren Etxe Museoa. Inbertsioak eta gastuak” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko

41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “Otei-



za Fundazioaren Etxe Museoa. Inbertsioak eta gastuak” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Burututako jarduerak eta horietako bakoitzagatik ordaindu diren zenbatekoak:

Gastu arruntak: 6.260.517 pezeta

Jorge Oteizaren obraren argitalpen fondoak eta fotolitoak erostea: 12.388.422 pezeta

Museoaren proiektu teknikoa egin dutenen lan-sariak: 18.432.514 pezeta

2.- Aurten sustatu diren jardueren zerrenda eta horietako bakoitzagatik 1998ko aurrekontuaren arabera hitzartu diren zenbatekoak:

Gastu arruntak: 13.200.000 pezeta

Teknikoen lansariak ordaintzea eta konponketa lan txikiak: 21.365.518 pezeta

3.- Lurren desjabetzapena: 100.000.000 pezeta

4.- Museoaren eraikuntza lanak: 230.000.000 pta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 28an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Nafarroak laguntzako marko komunitarioan parte hartzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroak laguntzako marko komunitarioan parte hartzeari buruz egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroak laguntzako marko komunitarioan (1994-1999) duen partehartzeari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

1993ko ekainean Europako Erkidegoen Batzordeak jakinarazpen bat argitaratu zuen (COM(93)282 azkena) honako izenburuarekin: “Ekimen komunitarioen etorkizuna egitura-fondoen babesean”. Jakinarazpen hori “Liburu Berdea” deitzen zaio; izan ere, Batzordeak EBko Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta oro har interesa duten sektore guztiei helarazten dien kontsultarako agi-

ria da, haiek iritzia eman ditzaten, gero Batzordeak kontuan izaten baititu ekintza-proposamena egiterakoan.

94-99 aldirako Batzordeak eztabaidarako bost gai nagusiren, bost ardatzen, zirriborroa egin du:

1. Mugaz haraindiko, nazioz haraindiko eta eskualdearteko sareak eta lankidetzak (“Interreg” eta “Regen”).

2. Landa-garapena (“Leader”).

3. Eskualde ultraperiferikoak (“Regis”).

4. Giza baliabideen erabilpena eta garapena.

5. Industria-aldaketaren kudeaketa (“Resider”).

Nafarroako Foru Komunitateak “Interreg”, “Leader”, Empleo”, “Adapt” eta “Resider” ekimenean hartzen du parte.

“INTERREG”

Nafarroak honako honetan hartzen du parte: “Interreg II ekimen komunitarioaren programa operatiboa Frantziako eta Espainiako eskualde mugakideetan, 2 zenbakidun, 5b eta kanpora helburuaren zona hautagarrien aldekoa, helburuak Espainian eta Frantzian”. Programa hori Batzordearen C(96)14 Erabakiaren bidez onartu zen 1996ko otsailaren 13an, 1994ko azaroaren 3a eta 1999ko abenduaren 31 bitarteko aldirako.

Nafarroako Gobernuak, bere departamentuetako ekintzetan, 1.879,78 milioi pezetako kostu hautagarria eta 939,89 milioi pezetako laguntza komunitarioa ditu esleituta aldi osorako.

Azkeneko jarraipen-batzordean (1997an) onartutako zifren arabera, Nafarroako Gobernuaren ekintzen betetze partziala 560 milioi pezetakoa da (programaren % 30).

Ekintzak beren aurrekontuekin gauzatu eta baterako finantzaketa komunitarioa (%50) zuzenean Europako Fondoen Unitate Administrazioetatik jasotzen duten entitateek ere hartzen dute parte, Nafarroako Gobernuaz gain. Hona hemen entitate horiek:

- Centros Tecnológicos de Navarra (Cetenasa) entitateak 22,238 milioi pezetako kostu hautagarria duten 3 ekintzatan eta 11,119 milioi pezetako EBko laguntza batean hartzen du parte.

- Nafarroako Merkataritza Ganberak 64,262 milioi pezetako kostu hautagarria duten 4 ekintzatan eta 32,131 milioi pezetako EBko laguntza batean hartzen du parte.

- Cederna-Garalurrek 11,6 milioi pezetako kostu hautagarria duten 2 ekintzatan eta 5,8 milioi pezetako EBko laguntza batean hartzen du parte.

- Asociación de la Industria Navarra (AIN) elkarteak 31,1 milioi pezetako kostu hautagarria duen ekintza batean eta 15,55 milioi pezetako EBko laguntza batean hartzen du parte.

- Zugarramurdi eta Urdazubiko udalek 8 milioi pezetako kostu hautagarria duen ekintza batean eta 4 milioi pezetako EBko laguntza batean hartzen dute parte.

Bestalde, Nafarroa, eskualde gisa, Espainiako eta Europako hainbat eskualdek "Interreg IIC" ekimenari aurkeztutako bi programa operatibotan dago sartuta; alabaina, programak ez daude eskualdetuta eta aurkez daitezkeen proiektuak hautapen lantaldeek onartuko dituzte edo baztertu dituzte.

#### "LEADER"

Nafarroak "Leader II" ekimenean hartzen du parte, 5b) helburuaren lurraldean jarduten duten toki-ekintzarako lau taldeen bidez.

Hona hemen aipatutako talde horiek:

- Cederna-Garalur
- Eder
- Teder
- Nafarroako erdialdea

Talde horietako bakoitzean hitzarmen bat sinatu da bere eskualdearen barruan jarduteko. Bai Batzordeak, bai Nafarroako Gobernuak dirulaguntza orokor bat ematen dute eta taldeek erabakitzen dute laguntzak eskatzen dituzten onuradunen artean horiek nola banatu. Taldeek gauzatzen duten Nafarroako Programarako, EBko Batzordearen laguntza orokorra 948,9 milioi pezetakoa da, eta Nafarroako Gobernuaren ekarpena, berriz, 646,88 milioi pezetakoa.

Taldeek aurrerakin modura 250,95 milioi pezeta jaso dituzte Europako Batasunetik eta 266,42 milioi pezeta Nafarroako Gobernutik. Horiek bat datoz ahalmenak eskuratzeko gastuekin eta Landa Berrikuntzarako Programen % 30eko lehen aurrerakinarekin.

#### "EMPLEO" ETA "ADAPT" EKIMENAK

"Empleo" eta "Adapt" ekimenen (Batzordeak onartutakoen) Espainiako Erreinuko Programa Operatiboetan sartzeko proiektuen deialdi nazionaletan, hainbat entitate publiko eta pribatuen proiektuak aurkeztu ziren. Horiek onartu egin zituen Europako Gizarte Fondoaren Unitate Administrazioaileak.

Deialdi horietan, eskualdeetako gobernuek beren lurralde-eremuan onartutako proiektuen inbertsio publikoaren zatia finantzatzea beren gain hartu behar zuten, eta proiektu bakoitzaren baterako finantziario komunitarioa jaso (hots, kostu osoaren %50).

Ondoren Enpleguaren eta Giza Baliabideen eta Langileak Industria Aldakuntzetara Egokitze (Adapt) ekimenen jarduketak azalduko ditugu, xehetasunez.

#### "EMPLEO"

1994-1997 aldian "Empleo" ekimenak hiru kapitulu zituen: Now; Horizon eta Youthstart.

"Empleo-Now" kapituluan, emakumeen alde enplegu-berdintasuna sustatzera bideratutakoan, lau proiektu onartu ziren:

IRE, CEINek kudeatutakoa, 20.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 10.000.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 8.560.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 1.440.000 pezeta ekarpen pribatuari.

AFA, Nafarroako Unibertsitateak kudeatutakoa, 15.124.550 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 7.562.275 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 4.537.365 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 3.024.910 pezeta finantziario pribatuari.

APEF-MYRINA, Cederna-Garalur Elkarteak kudeatutakoa, 42.659.202 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 21.329.601 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 19.196.641 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 2.132.960 pezeta ekarpen pribatuari.

REMOTE, aurrekoa bezala Cederna-Garalur Elkarteak kudeatutakoa, 40.000.000 aurrekontua duena. Horietatik 20.000.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 18.000.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 2.000.000 pezeta finantzaketa pribatuari.

“Empleo-Horizon” kapitulua lan egiteko gaitasuna duten pertsona minusbaliatu talde desberdinei zein lana lortzeko zailtasun handiak dituzten pertsona taldeei enplegu egonkorra izateko aukerak gehitzeko da. Kapitulu horretan bost proiektu onetsi ziren:

CIRCLE-CREINET, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kudeatutakoa, 175.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 87.500.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio eta gainerako 87.500.000 pezetak Nafarroako Gobernuari.

RECUPERA-ENSAMBLE, Traperos de Emaús fundazioak kudeatutakoa, 100.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 50.000.001 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 49.999.999 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 5.000.000 pezeta ekarpen pribatuari.

FENIX, Asociación Navarra para la Formación y el Empleo (ANAFE) elkarteak kudeatutakoa, 75.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 37.500.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio eta gainerako 37.500.000 pezetak Nafarroako Gobernuari.

OPTAS, TASUBINSAk kudeatutakoa, 50.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 25.000.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 22.500.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 2.500.000 pezeta ekarpen pribatuari.

MOSAIC, Bidean Elkarteak kudeatutakoa, 40.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 20.000.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 18.000.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 2.000.000 pezeta ekarpen pribatuari.

“Empleo-Youthstart” kapituluan, 20 urte baino gutxiagoko gazteen eta, bereziki, oinarritzko koalifikaziorik ez duten gazteen lan-merkatuaren inguruko ikerketa sustatzera eta laguntzera bideratuta-koan, hiru proiektu onartu ziren:

OFINET 2000, Lanbide Heziketako Eskualde Idazkaritza Salestarrak kudeatutakoa, 172.301.400 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 86.150.700 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 77.535.630 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 8.615.070 pezeta ekarpen pribatuari.

EGEO, Casa La Providencia-Karitatearen Alabek sustatutakoa, 15.200.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 7.600.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 6.080.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 1.520.000 pezeta ekarpen pribatuari.

BIOTEC-DUAL, Nafarroako Unibertsitate Publikoak sustatutakoa, 102.395.250 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 51.197.625 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio eta gainerako 51.197.625 pezetak Nafarroako Gobernuari.

“Empleo” kapituluaren proiektuak ia aurreikusitako modu berean gauzatu dira, nahiz eta, horietakoren batek 1998ko lehenengo hilabeteetara luzatzeko baimena lortu zuenez, horien azken itxiera ez den oraindik egin.

1998-1999 aldiari dagokion deialdiari dagokionez, kapitulu bakoitzerako onartutako proiektuak ondorengo hauek izan dira:

“Empleo-Now” kapituluan bost proiektu onartu dira:

ATECNA, Cederna-Garalur Elkarteak kudeatutakoa, 30.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 15.000.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 11.625.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 3.375.000 pezeta ekarpen pribatuari.

DIANA, Fondo Formación izenekoak kudeatutakoa, 59.999.400 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 29.999.700 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 29.099.709 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 899.991 pezeta ekarpen pribatuari.

EMPLEOVIA, CEINek kudeatutakoa, 75.518.750 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 37.759.375 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 36.626.594 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 1.132.781 pezeta ekarpen pribatuari.

FUTURA NET, Nafarroako Emakumearen Institutuak kudeatutakoa, 14.999.076 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 7.499.538 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio eta

gainerako 7.499.538 pezetak Nafarroako Gobernuari.

FUTURA IMPULSA, Nafarroako Emakumearen Institutuak kudeatutakoa, 24.998.400 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 12.499.200 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio eta gainerako 12.499.200 pezetak Nafarroako Gobernuari.

“Empleo-Horizon” kapituluan bi proiektu onartu dira:

MOSAIC-HANDI JOB CLUB, Bidean Elkarrean kudeatutakoa, 50.066.571 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 25.033.286 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 22.529.957 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 2.503.328 pezeta ekarpen pribatuari.

ATLAS, TASUBINSAk kudeatutakoa, 45.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 22.500.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 13.500.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 9.000.000 pezeta ekarpen pribatuari.

“Empleo-integra” kapituluan proiektu bat onartu da:

CIRCLE III, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak kudeatutakoa, 88.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 44.000.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio eta gainerako 44.000.000 pezetak Nafarroako Gobernuari.

“Empleo-Youthstart” kapituluan bi proiektu onartu dira:

DEMOS, Fondo Formación izenekoak kudeatutakoa, 51.600.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 25.800.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 24.768.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 1.032.000 pezeta ekarpen pribatuari.

OFINET MOBIL 2000, Lanbide Heziketako Eskualde Idazkaritza Salestarrak kudeatutakoa, 116.390.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 58.195.500 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 47.184.506 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 11.010.494 pezeta ekarpen pribatuari.

“Empleo” ekimeneko proiektu horiek 1998ko urtarrilaz geroztik ari dira gauzatzen eta oraindik ez da agirietan idatziz islatu horien betetze-maila, oraindik goizegi baita.

#### ADAPT

“Adapt” ekimen komunitarioa, Langileak Industria Aldakuntzetara Egokitzeari buruzkoa, enplegua sustatzera eta langileak industria-aldakuntzetara egokitzera bideratuta dago.

1994-1997 aldian, ekimen honen markoan hiru proiektu onartu ziren:

SPIRAL, Lanbide Heziketako Eskualde Idazkaritza Salestarrak kudeatutakoa, 200.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 100.000.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 93.000.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 7.000.000 pezeta ekarpen pribatuari.

ATON, Cederna-Garalur Elkarrean kudeatutakoa, 480.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 240.000.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 107.070.500 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 132.929.500 pezeta ekarpen pribatuari.

FUTUREM, CEINek kudeatutakoa, 68.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 34.000.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 30.600.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 3.400.000 pezeta ekarpen pribatuari.

“Adapt” ekimeneko hiru proiektuak burutu dira jada; printzipioz, hasierako aurreikuspenen arabera, nahiz eta azken itxiera ez den oraindik egin bost proiektuk 1998ko ekainera arteko luzapena lortu dutelako.

1998-1999 aldirako deialdiari dagokionean honako hauek dira onartutako proiektuak:

F.E.P. CONSTRUNET, Eraikuntzako Lan Fundazioak kudeatutakoa, 100.398.262 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 50.199.131 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 35.139.392 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 15.059.739 pezeta ekarpen pribatuari.

MUST-ANSWER, AINek kudeatutakoa, 32.000.000 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 16.000.000 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 9.600.000 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 6.400.000 pezeta ekarpen pribatuari.

INFORMA XXI, Cederna-Garalur Elkarrean kudeatutakoa, 198.677.500 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 99.338.750 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 49.784.700 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 49.554.050 pezeta ekarpen pribatuari.

ADAPTION 2001, CEINek kudeatutakoa, 248.018.347 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 124.009.188 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio, 99.447.597 pezeta Nafarroako Gobernuari eta 24.561.562 pezeta ekarpen pribatuari.

FARO, Fondo Formación izenekoak kudeatutakoa, 37.370.160 pezetako aurrekontua duena. Horietatik 18.685.080 pezeta Europako Gizarte Fondoari (FSE) dagozkio eta gainerako 18.685.080 pezetak Nafarroako Gobernuari.

“Adapt” ekimenaren proiektu hauek, “Empleo” ekimenaren proiektuen antzera, 1998ko urtarriletik ari dira gauzatzen, eta horregatik oraindik ez da agerian idatziz islatu horien betetze-maila.

#### RESIDER

Batasuneko kide diren estatuei egin jakinarazpenarekin bat etorritz, hots, Resider II (arro siderurgikoetako birmoldaketa ekonomikoa) (C(180), 1994.7.1ekoa) ekimenaren barruko programa operatiboetarako orientabideak ezartzen dituenarekin bat etorritz, Espainiako Erreinuak honakoa aurkeztu zuen: “Resider II ekimen komunitarioaren markoko programa operatiboa, ekimen horretan onargarriak diren zonetakoa, Espainiako 1. (Asturiasko, Kantabriako, Valentziako Erkidegoko eta Galiziako eskualdeak) eta 2. helburuei (Nafarroa eta Euskal Herriko eskualdeak) dagozkien

zonetakoa”. Programa hori 1995eko uztailaren 30ean onartu zuen Batzordeak (C(96)1917).

Programa Eragile horretan, zona hautagarri gisa hartzen dira barne Arbizu eta Lesaka udalerriak, Nafarroako Foru Komunitatekoak.

Aplikazioaldia 1997ko abenduaren 31n amaitu behar zen. Dena dela, Batzordeak, Jarraipen Lantaldearen eskariz, 1999ko abenduaren 31 arte luzatu du.

Ekintzen finantzaketan Nafarroako Gobernuak hartzen du parte, baita, beren lurraldeei dagozkien ekintzetan, Arbizu eta Lesakako udalek ere.

Nafarroako programaren kostua 491,6 milioi pezetakoa da, guztira. Horietatik 378,251 milioi pezeta Nafarroako Gobernuari dagozkio. Gobernuak 189,125 milioi pezetako dirulaguntza komunitarioa jasoko du.

1997ko abenduaren 31rako 245,97 milioi pezetako gastua (programatutakoaren %50ri dagokiona) egin da.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko uztailaren 28an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: Jose María Aracama Yoldi

## Nafarroako Gobernuak Bruselan daukan delegazioaren jarduerari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Nafarroako Gobernuak Bruselan daukan delegazioaren jarduerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 12an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du

Nafarroako Gobernuak Bruselan daukan Delegazioaren jarduerari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuaren Delegazioak Bruselan bildu duen informazioak Gobernuaren ia departamentu guztien jardura ukitzen du, baina komunitatearen politikek gehien ukitzen dituzten departamentuena pixka bat gehiago.

Delegazioak jarduteko bi modu desberdin ditu: batetik, Kanpo Ekintzarako Zerbitzuaren eskariz edozein Departamenturi interesatzen zaizkion gai zehatzei buruz informazio zehatza eskatuz, Batzordearen Zerbitzuetan, eta, bestetik, Batzordearen Zerbitzuek nahiz Espainiak Europako Batasunean duen Ordezkaritza Iraunkorrek edo

Europako Parlamentuak deitutako informazio-bileretan informazioa jasoz.

Adibide gisa, azken bi urteotan Batzordearen Zerbitzuek ondoko gaiei buruz deitutako informazio-bileretan parte hartu du Delegazioko pertsonalak:

Direktoria  
Agenda 2000  
Esprit Programa  
RITTS Programa  
Urbal Programa  
Informazio eta Hezkuntzaren Gizartea  
Leader Programa  
Fondoen Erreforma  
Hezkuntza eta Lanbide Heziketa  
Aldaketa klimatikoa  
Alterner Programa  
Kultur Programak  
Kohesio Fundoa

Era berean, Ordezkaritza Iraunkorrak (REPER) deitutako informazio-bileretara joan ziren; ordezkaritza horrek, gainera, informazioa ematen du astero, Kontseiluan egiten diren bilerei eta Eskualdeentzat interesgarriak diren gaiei buruz.

Adibide gisa, REPERek azken bi urteotan honako gai hauei buruzko informazio-bilerak deitu ditu:

Egitura fondoak  
Ingurugiroa  
Agenda 2000  
Ekonomi eta Moneta Batasuna  
Komitologia  
Enpleguari buruzko ezohiko gailurra  
V. I+G Programa Markoa  
Telekomunikazioak  
Europako Gizarte Fundoa  
Barne Merkatua  
Estatuen Laguntzak  
Phare Programa  
Landa Garapena  
Merkataritza

Era berean, Europako Parlamentuak deitutako informazio-bileretara joan ziren; hauetara, esate baterako:

Hiriei eta ingurugiroari buruzko audientzia publikoa  
I+Gri buruzko audientzia publikoa; 4 eta 5. Programa Markoak

Kontsumitzaileen ikuspegitik, moneta bakarraren aurrekariari buruzko audientzia publikoa

Kanpo Politika komuna eta gatazken prebentzioari buruzko Konferentzia

Merkataritzaren mundu mailako antolaketari eta garapen bidean dauden herriei buruzko audientzia publikoa

Zabalkuntzaren finantza-ondorioei buruzko mahainguruak

Deslokalizazioei eta atzerriko zuzeneko inbertsioei buruzko audientzia publikoa

Eskubide zibilen eta gizarte-eskubideen Europari buruzko Konferentzia

Gizarte klausulari buruzko audientzia publikoa

G-7ren gailurra

Emakumeak eta Internet gaiari buruzko tailerra: lana, aisia eta etengabeko prestakuntza

Arrazakeriaren aurkako Europako urteari buruzko audientzia publikoa

Enpleguaren astea Europan

Europako telekomunikazioei buruzko mahaingurua

Luxenburgoko Gailurraren ondorengo enpleguari buruzko mahaingurua

Hirien gaiari buruzko audientzia publikoa. Europan eztabaida egiteko orientazioa

Mikrokreditu eta mikrofinantzaketari buruzko audientzia publikoa

Patenteen bitartez berrikuntza sustatzeari buruzko audientzia publikoa

Urteko ekonomi txostenari buruzko audientzia publikoa

Audientzia publikoa: lan eta enplegu baldintzak subkontratazioaren eta kontratu publikoen testuinguruan

Euroaren herrien hautespenari buruzko Ezohiko Bilkura

Eurorako trantsizio-fasea

Koferentzia: perspektiba berriak Europan enpleguaren arloan

Kanpo Ekintzarako Zerbitzuari bilera hauei guztiei buruzko dokumentazioa eta informazioa igortzen zaio, interesatuta dauden Departamentuetara –gaiak ikusiz antzeman daitekeenez, ia guztietara– zabaltzeko.

2.- Organismoetan parte hartzeari dagokionez, Eskualdeen Lantaldeari buruzko guztia nabarmentzen da.

Lantalde horretan Nafarroaren ordezkaritza Gobernuko Presidenteak dauka kide titular gisa eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak ordezko kide gisa; osoko bilkuretara bietako bat joaten da.

Delegazioa, lantaldeko kideei lagunduz osoko bilkuretara joateaz gain (bi hilabete behin), lan lantaldeen bileretara ere joaten da, bereziki Nafarroa kide denekoetara (2 eta 5. lantaldeak); hila-

betero bilera bat edo bi egiten da, eta bertara delegazioko pertsonala joaten da.

Eskualdeen Lantaldeaz gain, Kanpo Ekintzarako Zerbitzuaren eskariz, eskualdeen arteko lankidetzak erakundeen (Nafarroak parte hartzen duen eta Bruselan bulegoak dituzten erakundeen) bileretara joaten da Delegazioko pertsonala, bulego horietan bilerak deitzen direnean, esate baterako: RETI (Industri Teknologiko Eskualdeen Sarea) edo CRPM (Eskualde Periferikoen eta Itsas Eskualdeen Konferentzia), Arku Atlantikoa edo ARFE (Europako Mugaldeko Eskualdeen Asanblada).

1998. urtetik aurrera, Nafarroak, beste zenbait autonomia erkidegok bezala, komunitateko zenbait kudeaketa lantaldetan hartzen du parte, baina Nafarroak lantalde horietan dauzkan ordezkariak Iruñean bizi diren funtzionarioak dira, eta Delegazioak hauei bere azpiegitura uzten die Bruselara joaten direnean.

3.- Batzordearen Zuzendaritza Nagusi guztietan aztertzen diren gai guztien jarraipen etengabe eta iraunkorra egiten du Batzordeak (proposamenak, programak, finantzaketa-lineak eta abar); horrekin informazio osoa eta osatua ziurtatu nahi da, berehala eskura dagoena eta Nafarroatik egiten den edozein kontsultari erantzutea ahalbidetuko duena.

Hala eta guztiz ere, une honetan gai jakin batzuek lehentasunezko jarraipena dute, hala nola:

- Ekonomi eta Moneta Batasuna: Euroa.
- Eskuduntza, Estatuaren laguntzak, eskualde-pizgarrien mapa.
- Batzordeak Agenda 2000ren garapenerako proposatutako Erregelamenduen tramitazioa; Erregelamendu horiek eskualde- eta kohesio-politika nahiz nekazaritza-politika komuna ukitzen dute.
- Ingurugiro-politika oro har eta honek beste politika komunitario batzuetan duen eragina
- I+Gko V. Programa Markoa
- Informazioaren Gizartea
- Energia berriztagarriak
- Industri politika eta ETEei laguntzeko politika
- Hirugarren herriekin lankidetzan aritzeko programak

Hau ez da katalogo itxia, alderantziz, gai berriak azter daitezke Batzordeak hauei buruz

jarreraren bat hartzen duenean, eta azkenaldi honetan honako gai hauek azpimarra daitezke:

- Enpleguaren eta gizarte arazoaren politika.
- Hezkuntza, Prestakuntza eta Gazteriari buruzko programen proposamenak.
- Kontsumitzaileen politika.

Era berean, gerta daiteke gai jakin batzuk, konpondu ondoren, garrantzia galtzea; esate baterako, Agenda 2000ren tramitazioa urte hori pasa eta gero, edo Euroaren ezarpena 2002. urte-tik aurrera; hori guztia dela-eta, argi dago katalogo irekia eta aldakorra dela.

4.- Delegazioak egindako jarraipen- eta laguntza-jarduketari dagokienez, hauetariko batzuk aipa daitezke:

- a) Espedienteen tramitazioaren jarraipena:
  - Ebro ibaiaren arroan hiriko hondakin-uren arazketari buruzko espedienteak, gaur egun onartuta eta egiten ari dena, Kohesio Fondoaren finantzaketarekin.
  - THERMIE Programan aurkeztutako Zolinako hiri bioklimatikoaren proiektua.
  - AINek BRITTE Programari aurkeztutako proiektua.
  - Latinoamerikarekin lankidetzan aritzeko programa komunitarioetan, Merkataritza Ganberak aurkeztutako proiektuak.
  - EHNk V Zuzendaritza Nagusian aurkeztu duen proiektua, prestakuntzari loturikoa.
  - NUPek aurkeztutako Leonardo proiektuen jarraipena.
  - TRACASAK Guatemalako Katastroa burutzeko aurkeztu duen proiektu pilotua.
  - Nafarroako Ikastolen Federazioak hizkuntza minoritarioei buruzko programan aurkeztutako proiektua.
- b) Finantzaketa komunitarioa lortzeko egindako kudeaketa eta kontsultak:
  - Nafarroako Plan Teknologikoarentzat finantzaketa komunitarioa lortzeko kudeaketak, plan hori RITTS programan aurkeztuz.
  - Nafarroako emakume enpresarioen elkarteak benchmarking-ari buruz aurkeztutako proiektu batentzat finantzaketa bilatzeko kontsulta.
  - Iruñeko Garraioaren Hiriaren enkarguz egindako kontsulta.

– Nafarroan Interprise bat egitea finantzatzeko posibilitateari buruzko kontsulta.

c) Delegazioaren eskuhartzeak arau-hauste edo kexa prozeduretan:

– Ponsal kasuari buruzko guztiaren jarraipena.

– Arazurirekin eta ingurugiroarekin erlazionatutako kexaren jarraipena.

– Txinari magnesio-esportazioetan antidumping klausula aplikatzea, Magnesitas de Navarra enpresaren eskariz.

– Batzordearen eskaria, krisian dauden enpresen legeari buruzkoa.

– Gaur egun itxita dagoen Cárnicas el Sadar enpresari buruzko espedientearen jarraipena.

5.- Delegazioak azken urte honetan bi topaketa antolatu ditu Bruselan, Gobernuako Departamentuen eskariz.

Industri Departamentuko funtzionarioen eta IV. Zuzendaritza Nagusiko (eskuduntza) funtzionarioen arteko topaketa bat, krisian dauden enpresen Foru Legearen zirriborroaren alde aurreko kontsulta gisa.

1998ko apirilean, Nekazaritza Departamentuko funtzionarioen eta VI. Zuzendaritza Nagusiko (Nekazaritza eta Landa garapena) funtzionario komunitarioen zein REPERekoen arteko topaketa bat, informatzailea, nekazaritza-politika komunen erreformei buruzkoa.

Bruselako bi topaketa hauez gain, Kanpo Ekintzarako Zerbitzuarekin eta Nafarroako Industri Elkartearekin lankidetzan aritu da Delegazioa, Iruñean burutu ziren hiru jardunaldiren programak antolatzen eta hizlariak bilatzen.

– Europako Batzordearen Latinoamerikarako Programei buruzko jardunaldia (97ko ekaina).

– Garapenari laguntzeko eta laguntza humanitarioei buruzko Europako programei buruzko jardunaldiak (97ko urria), zeinetan Gizarte Ongizate Departamentuak ere lagundu zuen.

– Informazioaren Gizarteari buruzko jardunaldiak (97ko azaroa).

Era berean, Nafarroako II. Ekonomi Kongresurako hizlariak bilatzen eta NUPEK antolatutako hitzaldi-zikloetan ere lagundu zuen.

Agintari edo funtzionario komunitarioekin Delegazioaren bitartez alde aurretik hitzartuta zeuden elkarrizketak egiteko, Gobernuako kide, funtzionario edo agente ekonomiko eta sozialek Bruselara

egindako bisitaldiei dagokienez, honako hauek aipa daitezke:

– Gobernuko presidentea (97 eta 98).

– Kontseilariak: Lurraldearen Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurugiroa (97); Industria, Merkataritza, Turismoa eta Lana (97); Ekonomia eta Ogasuna (97/98).

– Zuzendari Nagusiak: Toki Administrazioa (97); Ingurugiroa (97); Ekonomia (97); Lana (98).

– Idazkari Teknikoak: Industria, Merkataritza, Lana eta Turismoa (97 eta 98); Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura (98).

– Zerbitzu Zuzendariak: Kanpo Ekintza (97 eta 98); Lurralde Aberastasuna (97); Industria (97); Nekazaritzako Finantzaketa (98).

– Kabineteburuak: Ekonomia eta Ogasuna (97); Lehendakaritza (97 eta 98); Nekazaritza (98).

– Gainera, Agente Ekonomiko eta Sozial hauek aipa daitezke:

TRACASako gerente jauna.

AINren Euroventanillako Zuzendari andrea

NILSAko Gerente jauna.

CETENASaren ordezkaria.

SODEXNaren ordezkaria.

Iruñerriko Partzuergoaren ordezkariak.

Sodepazeko Gerentea.

6.- 1998ko uztailaren 1etik aurrera delegazioan bi bekadun ari dira lanean, eta bertan sei hilabete egonen dira, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak Merkataritza eta Industri Ganberarekin komunitateko gaietan lotutako graduondokoak prestatzeko izenpetutako Hitzarmen baten esparruan. Aurreko sei hilabeteetan zehar (urtarrila-ekaina) bekadun hauek Kanpo Ekintzarako Zerbitzuan lan egiten dute Iruñean, komunitateko gaiak jorratuz.

7.- Delegazioaren urteko kostuan ondorengo sartu behar da:

a) Bulegoaren errenta gastuak: 1998. urtean, 7.967.100 pezeta/urte.

b) Pertsonalaren eta funtzionamenduaren gastuak. 1998. urtean, aurreko urtean bezalaxe, 40 milioi pezeta sartu dira aurrekontuan. Zernahi gisaz, aipatu beharra dago 1997ko gastuen amaierako likidazioa 30.576.586 pezetetara iritsi zela.

1998. urteko 40 milioi horiek ondorengo eran daude banatuta: 26 milioi pertsonalarentzat, 9 milioi mantentze orokorreko gastuetarako, 4 milioi



ordezkaritza-gastuetarako eta milioi 1 ezusteko eta bestelakoetarako.

Bekadunen gastua ez dago sartuta, berau Merkataritza eta Industri Ganberak finantzatzen baitu.

8.

– Delegazioaren Zuzendari andrea

Hilabeteko ordainsari 450.000 PTA (14 paga)  
Dietak eta aurrerakinak 250.000 PTA

– Goi-teknikari Tituluduna

Hilabeteko ordainsaria 157.143 PTA (14 paga)  
Dietak eta aurrerakinak 150.000 PTA

– Administraria

Hilabeteko ordainsaria 125.000 PTA (14 paga)  
Dietak eta aurrerakinak 125.000 PTA

Oraingo pertsonalarekin, pertsonalaren gastuak, gizarte-segurantza barne, 20 milioiren inguruan kokatuko liriteke guztira, hasiera batean aurreikusitako gastuaren azpitik.

Hori guztia jakinarazi nahi Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 4an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

## “Bestelako elkarreentzako dirulaguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Jesús Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentario jaunak “Bestelako elkarreentzako dirulaguntzak” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko uztailaren 6an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Javier Arteaga Olleta jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Bestelako elkarreentzako dirulaguntzak” izeneko 33330-5 lerroari –525.000.000 pezeta– buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jardueren bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Hainbat elkarteri laguntza eman zaie, horiek ordezkatzeko kolektiboaren arazoei erantzuten dieten programak eta jarduerak diseinatu eta aurrera eramaten dituztelako.

Urtean aurreikusitako guztia betetzen ez duten laguntzak izan dira kasu guztietan, baina bigarren hiru hilekoan osatuko dira:

ENTITATEA	ZENBATEKOA
Adano	496.735
Ademna	329.600
Alcer	440.000
Amimet (Elkartea)	1.795.602
Amimet (zentro okupazionala)	1.500.000
Anasaps	19.623.026
Anfas	9.900.000
Anpheb	329.736
Asorna	3.532.370
Aspace	734.872
Berdintasuna	824.000
Centro Ocupacional Okile	647.886
Coordinadora de Minusválidos Físicos	3.660.869
Frater	49.300
Hemofilia	319.567
Laringectomizados	396.480
Psico-ballet	2.722.933
Residencia Javier	2.638.714
Síndrome de Down	322.628
Taller Virgen del Camino	430.987
Tasubinsa	200.836.446

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren araberako hitzartutako zenbatekoa.

Hainbat elkarteri ematen zaion laguntzari eusten zaio; esaterako, jarduerak kasu askotan indartu eta beste hainbat kasutan elkarte batzuen hazkuntza-perspektibaren alde egiteari ekin zaio, batez ere zentro okupazionalen kasuan eta baliabide ekonomiko mugatuak dituzten pertsona

minusbaliatuentzako aisialdi- eta kultur-jardueren kasuan.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1998ko uztailaren 14an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

## Lantero Taldeak Gráficas Estella, SA enpresa erosteari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak Lantero Taldeak Gráficas Estella, SA enpresa erosteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 26an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak idatziz erantzuteko galdera egin du Gráficas Estella SA enpresari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren baimena jaso ondoren, «Navarra de Financiación y Control, SA» enpresa publikoak «Gráficas Estella, SA» enpresan zituen akzioen % 75 saldu zion Lantero Taldeko «Gulan, SA» enpresari 1995eko martxoan, 1995eko maiatzaren 4an eskritura publiko bihurtu zen dokumentu pribatu baten bidez.

Salerosketa horretan zenbait konpromiso ezarri zitzaizkion erosleari inbertsioei eta enplegua sortzeari zegokienez:

Hona konpromiso horiek, hitzez hitz:

– «Datozen 4 urteetan «Gráficas Estella, SA» enpresako aktibo finkoetan inbertsioak sustatzea, 500 milioi pezetatik gorako zenbatekoan».

«Nafarroako enpresen ekoizpen-jarduerari eustea eta jarduera hori sustatzea, bai zuzenean ins-

talazioetan bertan, bai eragina duen ingurune geografikoko lantegi laguntzaileetako azpikontratazioei dagokienez, hauek lehenetsiz eta lehiakor-tasun-baldintzetan».

– «Enpresak, kontratazioari eta lanbide-heziketari dagokienez, oinarritzat izandako helburu eta enplegu-politikei eustea».

Eskueran dugun informazioari jarraiki (enpresako kontu orokor ikuskatuekin alderatu daiteke informazio hori), hauxe da konpromiso horiek betetzeari dagokionez egun duten egoera:

a) «Gráficas Estella, SA» enpresak 1.181 milioi pezetako inbertsioa egin du bere instalazioetako aktibo finkoetan 1995, 1996 eta 1997 urteen bitartean, eta 1998rako beste 125 milioiko inbertsioa aurreikusten da. Hala, lau urteetan guztira egindako inbertsioaren zenbatekoa 1.306 milioi pezeta ingurukoa izanen da, hitzartutakoa halako bi baino gehiago.

b) Enpresak, Lantero Taldeari salduz geroztik burututako inbertsio-planari esker, onera egin du bai fakturazioari dagokionez, 1994an fakturatzen zituen 3.620 milioi pezetatik 1997ko 4.454 milioi pezetetara igaro da, eta 1998rako 4.650 milioiko fakturazioa aurreikusita dago, bai emaitzei dagokienez, 1994an 93 milioiko galera izatetik, 1997an 82 milioiko irabazia izatera pasa baita, eta 1998rako 100 milioitik gorako irabazia izatea aurreikusita dago. Era berean, handitu egin da enpresaren nazioarteko jarduna eta lehen 1.158 milioi pezetako esportazioetatik (guztiaren %32) 1997ko 2.432 milioietara igaro da (guztiaren %52). Enpresaren ekoizpen-jardueraren hobekuntza honek –inbertsio handiak egin arren– lehendik zeuden lanpostuak sendotzea ahalbidetu du, salerosketa egin zen garaian zeuden 285 lanpostu ia

guzti-guztiei eutsi egin baitzaie (egungo langilekopurua 280 da).

c) Enpresaren enplegu-politikak 1995eko hasieran zuen ildo berari eutsi dio. Hala, enpresa Lantero Taldean sartu aurretik zeuden aurretiazko jubilazio-planek, borondatezko baja pizgarridunek eta ezgaitasunetarako izapideek bere horretan jarraitu dute. Tarte honetan 37 pertsonak utzi dute enpresa goian aipatutako plan horietako baten bidez. Langile-taldea berriztatu eta gaztetzeko politikari jarraiki, tarte horretan "Gráficas Estella, SA" enpresak 32 langile berri hartu eta kontratu egonkorra egin zaie.

Nafarroako Gobernuak ez du Lantero Taldeak, baldintza jakin batzuk bete ezean, inbertsioak Komunitatetik kanpo eramateko izan dezakeen asmoen inolako berririk izan. Bildutako informazioaren arabera, bezeroengandik eta hornitzaileen-gandik, "Gráficas Estella, SA", hurbil beste enpresa bat jartzea enpresaren ikuspegitik logikoa izan arren, 500 milioi pezeta inbertituko ditu lehen fase batean gure Foru Komunitatean, bigarren fase batean, lehengoak duen arrakastaren arabera, beste 500 milioi pezeta inbertituko ditu, eta 25 lanpostu egonkor sortuko ditu bigarren fasea amaitzerako.

Nafarroako Gobernuaren ustez, "Gráficas Estella, SA" enpresak eta osatzen duen taldeak beren jarduerari eutsi badio, une jakin batean emandako laguntza finantzarioari esker izan da batetik, eta, horrez gain, enpresarekin zerikusia duten giza baliabide guztiek egindako ahalegin jarraiori zor zaio. Horren ondorioz, jarduera handitzea eta enpleguari eustea lortu da.

Ezin ahaztu, azkenik, 1995 urte hasieratik "Gráficas Estella, SA" enpresa Lantero industria-taldekoa dela, eta Nafarroako Gobernuak, hala, enpresa horretako kapitala izateari utzi diola. Eta horrek bere ondorioak dakartza enpresaren baitan hartutako erabakiak baloratzeko garaian, batez ere, sozietate horrek akzioen salerosketa-kontratuan Gobernuarekin hitzartutako konpromiso guztiak bete dituela aintzat hartuz gero.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 21ean.

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

## “Kohesio Fondoak”, 36365-1 lerroa, aurrekontu kontusailari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Kohesio Fondoak”, 36365-1 lerroa, aurrekontu kontusailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 24ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 3an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Kohesio Fondoak”, 36365-1 lerroa, aurrekontu kontusailari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

Ekonomia Zuzendari Nagusiaren martxoaren 5eko 104/98 Erabakiaren bidez, aurrekontuetan aldaketak egin ziren eta 1998ko Aurrekontuetara gehitu zen “Kohesio Fondoak” deituriko kontusaila.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 53 artikuluko 3. atalean ezarritakoa betez, aurrekontuetan egindako aldaketa Nafarroako Parlamentuari jakinarazi zitzaion. Aldi berean, jakinarazi behar ziren aurrekontu-aldaketa guztiak, apirilaren 21ean euskarri magnetikoan eman zitzaizkion Parlamentuari.

Ondoren, 1998ko apirilaren 17an, Ekonomia Zuzendari Nagusiaren 200/98 Ebazpenaren bidez, aurrekontuetan beste aldaketa bat egin zen, eta hori ere Parlamentura igorri, 1998ko maiatzaren 20an, Parlamentura bidalitako euskarri magnetikoan sartua.

Europako Batzordeak, 1997ko azaroaren 5ean, “Ebro ibaiaren arroan hiri hondakin-urak araztea” proiektu multzoari Kohesio Fondoko diru-laguntza bat emateko erabakia hartu zuen.

Aipatu erabakiaren arabera, jarraian azaltzen diren lanetara zuzenduko da laguntza:

- Tuterako kolektore igorlea, Tuterako hiriguneko isurketentzat.
- Tuterako araztegia.
- Carcar-Andosilla-San Adrianeko kolektore igorlea.

Proiektu guztien gastu hautagarriak 9.612.496 ecu dira (1.600 milioi pezeta gutxi gorabehera), eta Kohesio Fondoak ematen duen laguntza gastu horien % 80koa da, hau da, 7.684.997 ecu (1.280 milioi pezeta, gutxi gorabehera).

Aipatu gastu hautagarriak 1997ko apirilaren 23tik 1999ko abenduaren 31ra bitartean egindakoak izango dira; gainera, aurkeztutako eta onetsitako proiektuak bakarrik izan daitezke, eta horrek esanahi du laguntza horiek ezin direla beste proiektu batzuetan erabili.

Europako Batasunetik datozen sarrerak (orain arte 39 milioi ingresatu dira, lehenengo aurrerakin bezala, inolako frogagiririk gabe) egindako gastuen arabera eta Europako Batasunak gastu horiek baieztatzen dituen heinean egiten dira; Kohesio Fondoko laguntzei buruzko erabaki orotarako ezarritako plan bat betez egiten da hori guziaz.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikuluko ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 31n

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

## **“Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusailaren kargura baimendutako mugimenduei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusailaren kargura baimendutako mugimenduei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 24ko 48. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 3an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” izeneko kontusailari (35465-2 lerroa) eta kontusailaren kargura emandako kreditu gehikuntzei buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

35465-2 lerroa “Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa” kontusailari dagokio. Aipatu kontusailaren hasierako saldoa zero pezetakoa zen.

Nafarroako Ogasun Publikoaren abenduaren 26ko 8/1998 Foru Legeko 53. artikuluko 3. atalean ezarritakoa betez, Foru Lege horretako 45. artikulua aipatzen dituen aurrekontu-aldaketak berehala jakinarazi zaizkio Nafarroako Parlamentuari.

Horregatik, kreditu gehikuntza ororen berri ematen zaio Nafarroako Parlamentuari jakinarazten zaio, jatorrizko agirien bidez eta euskarri magnetikoan. Zehazkiago, 98-III-17, 98-IV-21, 98-V-20, 98-VI-29 eta 98-VIII-11 egunetan, 1998ko urtarrila-otsaila, martxoa, apirila, maiatza eta ekaina tarteei dagozkien kreditu gehikuntzak biltzen dituzten euskarri magnetikoak sartu dira, hurrenez hurren, Nafarroako Parlamentuan. Beraz, jada Biltzar horretan dago Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak eskatzen duen informazio guztia.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondorengoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 31n

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

## **“Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriaren araubidea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunak “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriaren araubidea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 3an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentuko Taldeko Pedro Uriz Lanz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Lursailak desjabetzea Iruñeko garraioaren hirirako” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jarduera bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

“Ciudad del Transporte de Pamplona, SA”ri Imarkoainen Garraioaren Hiria eraikitzeke desja-

beturiko lursailen balio justuari dagokion zenbatekoa ordaintzea onartu zen, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiaren otsailaren 9ko 65/1998 Erabakiaz. Aipaturiko ordainketa, guztira, 92.940.968 pezetakoa izan zen.

Aipaturiko ordainketa egiteko, beharrezkoa izan zen 28.940.968 pezetako transferentzia egitea, otsailaren 2ko 59/1998 Erabakiaz. Kopuru hau ordurako bazegoen aurrekontu-kopuruari gehitu zitzaion.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Oraingo ekitaldirako ez dago beste ezer hitzemanik ez aurrikusirik ere, gaur egun ez baitago saldirik aipaturiko kontusailean.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 1ean

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## “Bidaiarien garraio zerbitzuei eusteko laguntza” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunak “Bidaiarien garraio zerbitzuei eusteko laguntza” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 3an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguí

### ERANTZUNA

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du “Bidaiarien garraio-zerbitzuei eusteko laguntza” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jardura bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

Aurten buruturiko jarduerak eta ordainduriko zenbatekoak ondokoak izan dira:

- Familia ugariengatik La Montañesa, SALI deskontuak ordaintzea (urtarriletik maiatzera bitartean): 1.422.525 pezeta.

- Eskualdeko treni buruzko RENFEekin hitzarmena (1. hiruilekoa) ordaintzea: 3.237.533 pezeta.

- Goizueta-Hernani linearen defizita Ceferino Apececheari ordaintzea (1. eta 2. hiruilekoak): 1.120.463 pezeta.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Aurten sustatutako jarduerak eta hitzartutako kopuruak ondokoak izan dira:

- Eskualdeko treni buruzko RENFEekin hitzarmena (3 hiruileko): 14.598.696 pezeta.

- Hitzarmena Apestegui jaunarekin (Leatxera-ko zerbitzua): 50.500 pezeta.

- Hitzarmena Apestegui jaunarekin (Oibarrera-ko zerbitzua): 510.000 pezeta.

- Goizueta-Hernani linearen defizita Ceferino Apececheari ordaintzea (3. eta 4. hiruilekoak): 1.120.463 pezeta.

- Errepidean barnako bidaiarien garraio publiko erregular iraunkor eta erabilera orokorrekoarentzat dirulaguntzak emateko deialdia (1300/1998 Foru Agindua, martxoaren 24koa): 27.000.000 pezeta.

- 1998an, errepidean barnako bidaiarien hiriar-teko garraio kolektiboa finantzatzeko laguntzak emateko deialdia (1299/1998 Foru-Agindua, martxoaren 24koa): 9.000.000 pezeta.

• Air Nostrum aire-lineak defizitarendako diru-laguntza: 25.000.000 pezeta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 1ean.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:  
José Ignacio Palacios Zuasti

## **Lurzoruaren problematikari buruz, horrek etxebizitzaren prezioan duen eraginari buruz eta Ondasun Publikoen eskuragarritasunari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak Lurzoruaren problematikari buruz, horrek etxebizitzaren prezioan duen eraginari buruz eta Ondasun Publikoen eskuragarritasunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 11ko 41. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentuko Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du lurzoruaren problematikari buruz, horrek etxebizitzaren prezioan duen eraginari buruz eta ondasun publikoen eskuragarritasunari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1. Zein da lurzoru publikoko ondasunaren egoera gure Komunitatean?

Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko etxebizitzetarako lurzoru publikoari dagokionean, adierazi behar da lurzoru hori etxebizitzak egitera bideratzen dela ahalik eta azkarren, eta, oso epe motzean, halako edo bestelako babes publikoko etxebizitzak sustatzeko izaten dela.

Une honetan diren erreserbek ziurtatzen dute epe motzeko (2 urte) lur horniketa, eta horrek prezioek gora ez egitea eragingo du, bai eta 6 urtetan zehar Iruñerrian nahiz Tuteran urtero 700 bat etxebizitza egiteko lurzoru eman ahal izatea ere.

Nafarroako udalek, bestalde, nork bere tokian dituen lurzoru publikoek gain, legeriak agintzen dituen probetxamendu urbanistikoaren lagapenak jasotzen dituzte. Udal horietako askok lurzoru hori babes ofizialeko etxebizitzak egiteko erabiltzen du, nahiz eta zenbait kasutan lurzoru hori enkante publikoan besterendu. Lurzoruaren erabilerari eta lur hori azkartasunez eskuragarri jartzeari buruz udal bakoitzak duen jokabidea oso garrantzitsua gertatzen da elementu horren, lurraren, eskaintzari dagokionez, zerikusi handia baitu etxebizitzaren amaiera prezioa kontrolatzeko garaian.

2. Zein udalerrik dituzte lurzoru publikoko ondasunak? Zenbatekoak dituzte eta zenbat etxebizitza euts ditzakete? Nafarroako Gobernuak zer nolako partehartzea du horietan?

Zehatz-mehatz 2.000 biztanletik goitikoak dira, uztailearen 4ko 10/1994 Foru Legeko 265. artikulua lurzoru publikoko ondasuna eratzera derrigor-tzen baititu. Hala ere, 2.000 biztanletik beheitiko zenbait udalerrik ere izaten du etxebizitzak egiteko lurzoru publikoa.

Etxebizitzak egiteko udal bakoitzak duen lurzoru ondare kopuruari edo udalen eraikuntza gaitasunari buruzko daturik ez du eskura, ez izaera orokorrez behintzat, Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Gobernuak ez du parte hartzen horietan, zenbait kasutan izan ezik, hau da, udalen bidez eskuratzen dituen izan ezik.

3. Zein da Nafarroako Gobernuak eskuragarri duen lurzoru publikoko ondasuna Nafarroako Etxebizitzari buruzko Planean aurreikusitako jarduketak burutu ahal izateko?

Une honetan honakoa da Nafarroako Gobernuaren lurzoru publikoko ondarea:

Iruñerrian:

– Sarriguren.- 1.400.000 m<sup>2</sup>, egoki diren jarduketa urbanistikoak egin ondoren gutxienez ere 3.600 etxebizitza inguru egiteko baliagarriak.

– Mendillorri.- 4. fasea. 650 etxebizitza egin ahalko dira.

– Iruña.- Arrotxapea eta Sanduzelai auzoak, 200 etxebizitza inguru egin ahal izateko modukoak.

– Berriozar.- (Erosketa tramiteak oso aurreraturik) – 170 etxebizitza egiteko moduko lurzatiak.

– Noain.- Erosketa-kontratu pribatuko lursailak, zortasun aeronautikoetara loturik badaude ere.

– Zolina.- Lursail horien gain NAMAISA Sozietate Publikoak erosketa aukera du, bera ari baita hiri bioklimatikoaren proiektua sustatzen; proiektu horrek 956 etxebizitza eraikitzeke asmoa du, eta horietatik 216 etxebizitza babes ofizialekoak izanen lirake; gainontzekoak salmenta librekoak.

Nafarroako beste herri batzuk:

– Tuterako Instituto poligonoa. Lurzoru horretan, 300en bat etxebizitza egin daitezke.

– Beste poligono batzuk. 60 etxebizitza egiteko lain.

– Alde Zaharra. 50 etxebizitza egiteko eraikina.

Horiez gain, Foru Komunitatearen jabegoko beste lursail batzuk ere badira beste udalerrri batzuetan, adibidez: Corella, Valtierra, Lizarra eta Arguedasen.

Bestalde, Vinsa Sozietate Publikoak ere baditu beste lurzoru batzuk Berriozar, Iruña eta Tuteran, guztira 270en bat etxebizitza egiteko modukoak.

4. Azken 10 urteotan, zein neurritan urbanizatu da lurzoru publikoa gure Komunitatean, eta bereziki Iruñerrian?

Nafarroako biztanleek, bereziki Iruñerrikoek, prezio oneko etxebizitza eskuratzeko duten premia ikusirik, eskualde horretan arazoa benetan larria baita, eraikitzeke lurzoru publikoak egokitu dira:

A. Lurzoru publikoa esleitzeko lehiaketen bidez (4.808 etxebizitza).

B. Vinsak egin duen sustapen zuzenaren bidez (2.681 etxebizitza).

C. Vinsak eta beste erakunde batzuk egin dituzten hitzarmen bidezko sustapenaren bidez, jatorri publikoko lurzoruetan gehien bat, nahiz eta zenbait kasutan –oso gutxitan- jatorri pribatuko lurzoruak erabili (1.576 etxebizitza).

Horrela eraikitako etxebizitzaren batura 9.065 da, eta horietatik 8.235 Iruñerrian daude eta 830 Nafarroan zehar barreiatuak.

5. Zer nolako aurreikuspena dauka Nafarroako Gobernuak lurzoru publiko berria eratzeko, eta baita ere eskuragarri dauden lurzoru publikoen gehikuntzari buruz?

Nafarroako Gobernuak lege proiektu bat igorri du Parlamentura, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legea arlo honetan Estatu mailako legeriaren xedapenetara egokituko duena, hau da, lurzoru jabeek egin beharreko lagapena zenbatzeari dagokionez eta horrekin sortzen den hirigintza karga murrizteari dagokionez. Hartara, aprobetxamendu lagapenaren bidez sortzen den lurzoru publikoaren gorakada erregulatzeko esparru egonkor bat eratuko da.

Bestalde, Nafarroako Gobernuak dagoen ondarearen kudeaketa urbanistiko bultzatzeari ekin dio. Arlo horretan ekintzarik aipagarrienak dira Mendillorriko laugarren fasea, 650 etxebizitza eraikitzeke, Tuterako jarduketa, Instituto poligonoan, 300 etxebizitza eraikitzeke, eta Tuterako Alde Zaharrean zein beste leku batzuetan burutu direnak, guztira 100 etxebizitza eraikitzeke.

Halaber, Eguesibarreko Udalarekin egindako lankidetzaren hitzarmenaren garapenean, eta Iruñerriko lurzoru publiko eta pribatuen bilakaera ikusirik, Sarriguren arian-arian urbanizatuko da.

Ondoko erantzunetan emanen da gai horri buruzko argibide gehiago.

6. Lurzoru publiko eskuragarriaren kopurua gehitu behar dela jotzen al du Nafarroako Gobernuak? Baiezkoan: zer neurri hartuz?

Lurzoru publiko eskuragarria gehitu egin behar da, horrela egiteak etxebizitzaren prezioei eusten laguntzen duelako.

Horretarako, lehendabizi udalen eta udalez gaidiko planeamendu urbanistikoak garatu behar dira, eta etxebizitza eraikuntzen bidezko probetxamenduen lagapenak babes ofizialeko etxebizitzak egiteko erabil daitezten lortu.

Gainontzeko neurriak Etxebizitza Planean aurreikusitakoak dira, eta ondoko galderaren erantzunean zehaztuko dira.

7. Lurzoruaren arloan, zer jarduketa burutzea aurreikusten du Nafarroako Gobernuak aipaturiko Etxebizitzari buruzko Planean ezarritakoa betetzeke?

Honakoak dira aurreikusita dauden jarduketak:



- Iruñerriko eta Erriberako Hirigintza Arauak tramitatzea.
- Udal eta udalez gaindiko planeamendu urbanistikoak (Eguesibar-Sarriguren) sustatzea.
- Toki garapenerako planeamenduak bultzatzea.
- VINSari, diru publikoko sozietate horri, etxebizitzak egiteko lurzorua salmentara ateratzea, kudeatzea, urbanizatzea, tramitatzea, aholkularitza, azterlana, planifikazioa eta ardura agintzea.

- Lurraldearen antolamenduari buruzko foru legeria aldatzea probetxamenduen lagapenari, udalek lurzoruan egiten duten inbertsioei eta etxebizitza babestuak egiteko lurzoru erreserbari dagokienez.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **“Kanpoan dauden nafar etxeentzako laguntzak” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, Landa Marco Foru Foru Parlamentario jaunak “Kanpoan dauden nafar etxeentzako laguntzak” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Nueva Izquierda Parlamentuko Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentario jaunak galdera egin du “Kanpoan dauden nafar etxeentzako laguntzak” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1.- 1998ko ekainaren 10a arte 00620-7 lerrozabakia duen “Kanpoan dauden nafar etxeentzako laguntzak” kontusailatik irtendako guztiaren zerrenda zehatza.

2.- Baldin badaude, aipatutako kontusailaren kreditua handitzea beharrezko egiten duten bete gabeko konpromisoak.

“Kanpoan dauden nafar etxeentzako laguntzak” delako 01400-4810-1269 kontusailak, 00620-7 lerroari dagokionak, 10 milioi pezeta jaso behar zituen hasiera batean, baina Nafarroako

Gobernuaren 1998ko apirilaren 6ko Erabakiaren bidez 21 milioi pezetara zabaldu zen laguntza. Kontusailaren hasierako helburua “Udako Eskola” eta “Nafarroara itzultzea” izeneko programak finantzatzea zen. Aipaturiko zabaltzeari esker, posible izan zen Espainiatik kanpoko zentroentzako laguntza-deialdia finantzatzea, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren apirilaren 16ko 32/1998 Foru Aginduaren bidez onetsia.

Aipaturiko kontusailaren kargura 1998ko ekainaren 10a arte luzatu diren gastu-baimenak egiten honako hauek dira:

– “Nafarroa 1998” Seigarren Udako Eskola, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren martxoaren 4ko 22/1998 Foru-Aginduaren bidez deitua: 8.500.000 pezeta (Argentina, Txile, Mexiko eta Uruguai 40 gaztek parte hartu dute).

– “Nafarroara Itzultzea” ekimenaren zazpigarren edizioa, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren martxoaren 4ko 23/1998 Foru-Aginduaren bidez deitua: 1.500.000 pezeta (Argentina eta Txileko Nafar Zentroetako 12 kidek parte hartu dute).

– Espainiatik kanpoko nafar zentroentzako laguntza-deialdia, Lehendakaritzako idazkari nagusiak 1998ko maiatzaren 11ko erabakiaren bidez Rosarioko Nafar Zentroari emana, Nafarroako Kultur Astea Argentinan antolatzeko: 7.000.000 pezeta. Kultur Asteak 1998ko maiatzaren 20tik 25era bitartean iraun zuen eta Buenos Aires, Mar del Plata, Bolívar eta Mendozako 300 pertsonak parte hartu zuten guztira.

Ekainaren 10az geroztik, aipaturiko Espainiatik kanpoko nafar zentroentzako laguntza-deialdia betez, ondoko dirulaguntzak onartu dira:

– Buenos Airesko Nafar Etxeari 4.500.000 pezetakoa, zentroaren finantzaketa-gastuak saneatzeko, hau da, zentroak zeuzkan maileguak eta zorrak kitatzeko, Lehendakaritzako idazkari nagusiak 1998ko ekainaren 29an emandako erabakiaren bidez.

– Rosarioko Nafar Etxeari 2.000.000 pezetakoa, Entre Ríos kaleko 248ko egoitza birgaitu eta birregokitzeko gastuak finantzatzeko, Lehendakaritzako idazkari nagusiak 1998ko ekainaren 29an emandako erabakiaren bidez.

– Sud-eko Nafar Etxeari 2.000.000 pezetakoa, egoitza soziala hobetzeko gastuak finantzatzeko.

– Mendozako Nafar Etxeari 1.800.000 pezetakoa, nafar etxe horretako dantza-taldeko kideentzako eta kanpoko beste nafar entitate batzuentzako dantza-eskolaren antolamendu-gastuak finantzatzeko (hori guztia Iruñean egingo baita uztailearen 2. hiruilekoan), eta Mendozako Cole-

gio Españolekin elkarlanean, beste hezkuntza-proiektu bat finantzatzeko, aipaturiko zentroan “Nafarroa” izeneko informatika-gela jarriko baita.

– Txileko Nafar Zentroari 400.000 pezetakoa, nafar akordeoilari baten bidaia-gastuak finantzatzeko. Izan ere, zentroak antolatu dituen kultur egitarauaren barruan, hainbat musika-emanaldi eskainiko dira datozen San Ferminetan, uztaileko lehen asteburuan hain zuzen ere.

– Montevideoko “Centro Euskaro”ko Uruguako Nafar Ikasketa-Zentroari, 1.500.000 pezetakoa, Montevideoko Nafarroako lehen kultur astearen gastuak finantzatzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 3an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriaren araubidea” kontusailaren betetze mailari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunak “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriaren araubidea” kontusailaren betetze mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguí

### ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentario jaunak galdera egin du “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriaren araubidea” kontusailaren betetze mailari buruz. Hona Toki Administrazio Kontseilariaren erantzuna:

1. Buruturiko jardueren zerrenda eta gauzaturiko jardueren bakoitzagatik ordaindutako zenbatekoak.

2. 1998an sustatutako jardueren zerrenda eta horietako bakoitzean 1998ko Aurrekontuaren arabera hitzartutako zenbatekoa.

Abenduaren 2ko 16/1997 Foru Legeak ezarritzen du “Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiria”; horren bidez, udalaren finantzaketa-araubide arruntari halako osagarri berezia eman zaio.

Arau horrek bi ondorio ekarriko dizkio Iruñeko Udalari: alde batetik, finantzaketa-sistema propioa ezarriko da, Nafarroako toki entitateentzako araubide arruntaren osagarri; eta beste alde batetik, Toki Ogasunen saneamendurako Nafarroako Gobernuaren kooperazio ekonomikoa arautzen duen azaroaren 13ko 15/1989 Foru Legean xedatutakotik kanpo geratuko da udala 1997ko abenduaren 31tik aitzina.

Gaitzen duen arauari jarraituz, kontzeptu horren barruan sartutako zenbatekoek ez dute kontuan hartzen jarduera zehatzik; beraz, ez da posible gai horri buruzko galderari, egin den bezala egin dela behinik behin, erantzutea.

Nafarroako Gobernuak Iruñeko Udalari eman-beharreko ekarpenen ordainketa-araubideari dagokionez, aipaturiko 16/1997 Foru-Legearen arabera, ondoko jarduerak burutu dira gaurko egunera arte:

1. 145/1997 Foru Agindua, abenduaren 22koa, Toki Administrazioako kontseilariak emana, Iruñeko Udalaren 1996ko aurrekontuaren beteareazpenari dagokionez 15/1989 Foru Legea likidatu eta 1997rako 16/1997 Foru Legea aplikatzen duena.

2. 33/1998 Ebazpena, otsailaren 9koa, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emana, "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriari" dagokion

1998ko urteroko lehen ordainketa (494.094.500 pezeta) egiteko agintzen duena.

3. 177/1998 Ebazpena, martxoaren 30ekoa, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emana, "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriari" dagokion 1998ko urteroko bigarren ordainketa (494.094.500 pezeta) egiteko agintzen duena.

4. 366/1998 Ebazpena, ekainaren 22koa, Toki Administrazioako zuzendari nagusiak emana, "Iruñeko Hiriaren Hiriburutza Agiriari" dagokion 1998ko urteroko hirugarren ordainketa (494.094.500 pezeta) egiteko agintzen duena.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 1ean.

Toki Administrazioako Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## Hainbat espezialitatetako kanpoko kontsultak arratsaldez irekitzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak Hainbat espezialitate-tako kanpoko kontsultak arratsaldez irekitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentuko Taldeko M<sup>a</sup> Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentario andreak galdera egin du hainbat espezialitatetako kanpoko kontsultak arratsaldez irekitzeari buruz. Hona Osasun Kontseilariaren erantzuna:

1.- Osasun Departamentuak arratsaldez irekiko al ditu kanpoko kontsultak, itxaron-zerrenda goraka joan zaien espezialitateetan?

2.- Mediku-talde gehiago jarriko al da arratsaldetan oftalmologia, alergologia, traumatologia eta neurologia espezialitateetan, itxaron-zerrendak arintzeko?

Oro har, Osasunbidea/Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez dauka aurreikusita itxaron-zerrenda goraka joan den espezialitateetako kanpoko kontsultak arratsaldean irekitzea.

Gaur egun, ondoko atalak daude ikergai:

– Eskaintza aztertzea.

– Eskaintza razionalizatzea, Oinarrizko Laguntza/Laguntza Espezializatuan oinarrizko deribazio- eta koordinazio-irizpideen arabera.

– Kanpoko kontsultetan eginiko jarduerak ebaluatzea.

Hori guztiori bi helbururekin: alde batetik, Laguntza Espezializatuaren eta Oinarrizko Laguntzaren arteko eskaintza orekatzea; eta beste alde batetik, berandutze-denborak gutxitzea.

3.- Zer sistema du Nafarroako Osasun Zerbitzuak arreta espezializatuko kontsultak eskatzen

dituzten eri kronikoen kontsultak sumatu, baloratu eta lehenesteko?

Laguntza Espezializatuko kontsultak eskatzen dituzten gaixo kronikoen kontsultak baloratu eta lehenesteko, Osasunbidea/Nafarroako Osasun Zerbitzua Oinarrizko Laguntzaren Sendagile Sareaz baliatzen da. Oheburuko medikua gaixoari eman-beharreko laguntza osoaren erantzulea denez, bere gaixo kronikoen beharrianak detektatu, baloratu eta lehenesteko irizpideak berak fin-

katu behar ditu, hain zuzen, eta horren arabera deribazio-irizpideak (arrunta, larrialdikoa, lehentasunezkoa) egoki erabaki.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 2an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

## **Paz de Ziganda ikastolarekin eraikin berriak egiteko hartutako konpromisoei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak Paz de Ziganda ikastolarekin eraikin berriak egiteko hartutako konpromisoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30ko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentario andreak galdera egin du Paz de Ziganda ikastolarekin eraikin berriak egiteko hartutako konpromisoei buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Hezkuntza eta Kultura Departamentuak ez du inolako berririk Nafarroako Gobernuak eraikin berriak eraikitzeke laguntza ekonomikoa emateko "Paz de Ziganda" ikastolarekin konpromisoa hartu zuela dioen informazioaren inguruan.

2.- Nafarroako Foru Komunitateko 1998ko ekitaldirako aurrekontuetako 12751-9 lerroa ez da nominala, generikoa baizik. Horrenbestez, Dirulaguntzei buruzko Legearen arabera, deialdi publiko, ekainaren 16ean onetsia (214/1998 Foru Agindua), egin beharra dago. Deialdi hau esleitzean finkatuko dira onuradunak eta dagozkien zenbeteoak.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 27an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Landa-eskualdeetarako pizgarrien mapa finkatzeari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak Landa-eskualdeetarako pizgarrien mapa finkatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak idatziz erantzuteko galdera egin du landa-eskualdeetarako pizgarrien mapa finkatzeari buruz. Hona Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren erantzuna:

Landa-eskualdeetarako pizgarrien mapa, 2000-2006 denboraldirakoa, oraindik finkatu gabe badago ere, horren definiziorako irizpideak, ordea, dagoeneko jasota daude Eskualdeak helburu dituzten estatuko dirulaguntzei buruzko zuzentarauetan, argitara eman baitziren Europako Komunitateetako Egunkari Ofizialean (C Saila), 1998ko martxoaren 10ean.

Gaur egun Nafarroan indarrean dagoen pizgarrien mapa argitara atera zen Europako Komunitateetako Egunkari Ofizialean (C Saila) 1996ko urtarrilaren 31n; 2 eta 5b zk.ko helburuko udalerriki hartzen ditu barne, eta Iruñeari dagokionez, 2 helburuko inguruak baino ez (eta dirulaguntzak, gehienez jota, % 15ekoak dira).

Prozedura, berriz, eskualdeak helburu dituzten estatuko dirulaguntzei buruzko zuzentarauetan jasota dago.

Une honetan Batzordeak dagoeneko zehaztu du (behin-behineko izaeraz eta berraztertze asmoz, Eurostat-ek urrian emandako datuekin) estatukide bakoitzeko lagunduriko herritarren portzentajea zein den (Espainiaren kasuan, esaterako, portzentajea % 77,2koa da).

Estatuaren barruko zonaldeak zehazteko, zuzentarauetako 3.10 atalean ezarrita dagoen prozedura hartuko da kontuan; herritar-kopuruak,

berriz, ezin izanen du gainditu Batzordeak Estatu osorako zehazturik daukan lagunduriko herritarren portzentajea.

Ekonomi eta Ogasun Ministerioko Aurrekontu-Azterketa eta Programaziorako Zuzendaritza Nagusiak gestionatzen du prozedura Espainian; eta laster, bi aldeko kontaktu-txanda egingen du 2 eta 5b helburuetako autonomia erkidegoekin, Nafarroarekin kasu.

Gobernuaren aldetik, bi aldeko kontaktu-txanda horri begira, aurretiko lehen gestioak bultzatzeko urratsak eginda daude Ekonomi eta Ogasun Ministerioan, hala Aurrekontu eta Gastuetarako Estatu-Idazkaritzan nola lehen aipaturiko Zuzendaritza Nagusian, eta horren gaineko kezka azaltzeaz gain, eskatu ere egin zaio Nafarroa ondo kokatuta gera dadin 2000-2006ko denboraldian indarrean jarriko den mapa berri horretan.

Gauzak horrela, José Folgado Blanco Aurrekontu eta Gastuetarako Estatu Idazkari jaunarekin bildu nintzen joan den uztailaren 1ean, eta hilabete horretan bertan, 23an hain zuzen, igorri nizkion eskutitza eta txostena, horien kopiak izanik honi atxikita Foru Parlamentario andre horri helarazten dizkiodanak.

Hori baino lehen, Azpiegituren Fondoak aldatzeko azterketa egiten hastean, Ogasun eta Ekonomia Kontseilari honek Nafarroaren interesen defentsa egin zuen bi bileratan. Lehena, 1997ko udaberrian izan zen, Monika Wulf Mathies Eskualde Politikarako komisario europearrarekin; eta bestea, garai berean, Eneko Landaburu Europako Batasuneko Eskualde Politikarako zuzendari nagusiarekin.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 1ean.

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: Jose María Aracama Yoldi

(Oharra: Aipatu agiriak Foru Parlamentarioen esku daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoan).

## **Burlatako kulturetxea finantzatzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak Burlatako kulturetxea finantzatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "Burlatako Kulturetxea finantzatzeari" buruz. Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

1.- Gobernuak Burladako Kulturetxea eraiki eta ekipatzeko dirulaguntzak emateko asmoa duela adierazi die bertako Udaleko arduradun politikoei, eta hala egingen du 1999ko eta hurrengo urteetako "Kulturetxeak eta beste udal kultur-gune batzuk eskuratu, eraiki, egokitu eta ekipatzeko dirulaguntzak" deialdiaren bitartez.

2.- Gobernuak ez du diru-kopururik hitzartu. Hala ere, ahalik eta dirulaguntzarik handiena emateko prest dagoela adierazi du, aurrekontuak eta kulturetxeentzako dirulaguntzen deialdia arautzen duen arautegiak horretarako bide ematen dion neurrian.

3.- Burladako Udalak, 84/89 Foru Dekretuak arautzen duen "Kulturetxeak eta beste udal kultur-gune batzuk eskuratu, eraiki, egokitu eta ekipatzeko dirulaguntzak" deialdian parte hartzen badu, eta bertan jasota dauden baldintzak betetzen baditu, dirulaguntza gauzatzeko erabiliko zen aurrekontuko kontusaila hauze izanen da: 42000 7600 2 4511 "Kulturetxeak eta beste udal kultur-gune batzuk eraiki eta ekipatzea".

Edozein modutan, ekipamendu eszenikoari begira, Hezkuntza eta Kultura Ministerioak INAEM -Antzezte-Arteen eta Musikaren Institutu Nazionalaren bitartez sustatzen dituen dirulaguntzak eska ditzake Burladako Udalak.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko abuztuaren 31n.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **Ikastoletako azpiegitura-lanak egitea xede duen 12751-9 aurrekontu lerroaren betetzeari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak ikastoletako azpiegitura-lanak egitea xede duen 12751-9 aurrekontu lerroaren betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 30eko 51. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentario andreak galdera egin du Ikastoletako azpiegitura-lanak egitea kontusailari buruz (12751-9 lerroa). Hona Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariaren ekainaren 16ko 214/1998 Foru Aginduaren bidez, NAO-n argitaratua 1998ko ekainaren 26an, gizarte-ekimeneko ikastetxe pribatuei eraikin berriak eraikitzeko dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarri erregulatzailerak onartu ziren.

Xedeak, betekizunak eta baloratzeko eta ebazteko prozedura deialdi horretan agertzen dira, eskabideak aurkezteko eta ebazpenaren berri emateko epeekin batera. Horrek kontusail hori aurtengo aurrekontuko ekitaldian erabiltzea ahalbidetuko du.

Hori guztia jakinarazi nahi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 1ean

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## **PEPRI delakoaren barruan 1992. urtean Nafarroako Gobernuak bideratutako espedientei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak PEPRI delakoaren barruan 1992. urtean Nafarroako Gobernuak bideratutako espedientei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko ekainaren 17ko 45. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Ezker Abertzalea Parlamentuko Taldeko Patxi Zabaleta Zabaleta Foru Parlamentario jaunak idatziz erantzuteko galderak egin ditu. Hona Inguru-

giro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzunak:

1.- Zeintzuk ziren PEPRI delakoaren barruan 1992. urtean Nafarroako Gobernuak bideratutako espedienteen kopurua?

3.079 etxebizitza-eskuratzaile eta zaharberri-tze-sustatzailerik buruzko mailegu koalifikatu izapidatu ziren 1992an. Oro har, etxebizitza bakoitzari espediente bana dagokio.

2.- Zenbatekoa da espedienteen sinatzaileei dirulaguntzak emateko aurreikusita zegoen aurrekontuen diru kopurua?

“Etxebizitza-sustatzaile, eskuratzaile eta erabiltzaileentzako dirulaguntzak” kontusailak 3.417 milioiko zuzkidura zeukan 1992. urteko aurrekontuan.

3.- Eta 1993. urtean sinatutakoen kopurua eta aurrekontua?

4.588 etxebizitza-eskuratzaile eta zaharberitze-sustatzaileri buruzko mailegu koalifikatu izapidatu ziren 1993an. Lehen aipatu kontusailaren aurrekontuan sartutako zenbatekoa 3.648 milioi pezetakoa izan zen 1993. urtean.

4.- Eta hurrengo urteetan sinatutakoak?

Etxebizitzak eskuratu eta zaharberitzeko mailegu koalifikatuek, ondoko etxebizitza-kopuruaren gainean izan zuten eragina:

1994. urtea	3.061
1995. urtea	3.412
1996. urtea	2.548
1997. urtea	2.242

5.- Zeintzuk dira lortutako mailegu merkeak negoziatzeko parte hartu duten aurrezki kutxa eta banketxeak?

- Partehartzaileak ondoko entitateak dira:
- Banco Atlántico
- Banco Bilbao Vizcaya
- Banco Central Hispanoamericano, SA
- Banco de Crédito Agrícola
- Banco de Vasconia
- Banco de Vitoria

- Banco Español de Crédito, SA
- Banco Guipuzcoano
- Banco Herrero
- Banco Hipotecario
- Banco Mapfre
- Banco Popular
- Banco Santander
- Banco Urquijo
- Banco Zaragozano
- Bankinter
- Caixa Galicia
- Nafarroako Aurrezki Kutxa
- Iruñeko Kutxa
- Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Zaragoza, Aragón y Rioja
- Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelona
- Caja de Cataluña
- Caja de Madrid
- Caja España de Inversiones, Casja de Ahorros y Monte de Piedad
- Caja Laboral LAR, S. Coop. de Crédito Ltda.
- Caja Postal
- Caja Rural de Navarra

6.- Zein da 1992tik aurrera finantza entitate bakoitzarekin adostutako diru kopurua?

FINANTZA ENTITATEA	1992	1993	1994	1995	1996	1997
Nafarroako Aurrezki Kutxa	12.000	11.000	16.000	12.000	14.000	11.000
Iruñeko Kutxa	4.000	5.400	8.000	8.000	10.000	3.600
Banco de Santander			2.000	1.500	1.500	1.500
Caja Laboral Popular	1.200	1.500	2.500	4.000	10.000	5.000
Banco Bilbao Vizcaya	500	250	500	1.000		1.000
Caja Rural de Navarra	3.000	4.000	8.000	8.000	8.000	8.000
Banco Herrero						200
Banco Mapfre						300
Caja de Madrid					200	200
Caja Postal	500	400	500	500		250
Banco Guipuzcoano	300	150	150	150		300
Banco de Vitoria			200	250		750
Banco Hipotecario	3.000	3.000	3.000	5.000	1.000	2.000
Caja España				1.000		1.000
Banco Popular	300			500	1.000	1.000
La Caixa	1.500	2.500	2.500	2.500	3.000	3.000



ENTIDAD FINANCIERA	1992	1993	1994	1995	1996	1997
Caja de Cataluña				1.000	1.000	1.000
B. Hispanoamericano		700	700	700		1.000
Ibercaja	2.400	550	2.500	2.500	3.000	3.000
Banco Español Crédito	500	500		1.000		500
Banco de Vasconia	500	250	250	1.000	2.000	2.000
Banco Atlántico						500
Banco Zaragozano				500	100	100
Banco Urquijo	400			500		
Caja Rioja	200	100				
Banco Crédito Agrícola				100		

7.- Zer nolako jarraipena egin du Gobernuak, horretaz arduratzen den Departamentuak, sinatutako akordioak errespetatu zitezela?

Elkar harturiko zenbatekoak etxebizitza-finantzaketaren beharra baino handiagoak dira; horrela, askatasun handiagoa lortzen da, sustatzaile eta eskuratzaileek nahiago duten finantza-entitateak jo dezaten; Sustapen Ministerioaren ohitura bazterturik, banketxe edo kutxa bakoitzaren artean ez da kupo zorrotz eta hertsirik banatu; aitzitik, banketxe eta kutxek elkarren lehian aritu behar izan dute, maileguak bereganatu ahal izateko.

Hilean behin, indarrean dauden 17.000 mailegu kualifikatuen likidazioak berrikusten ditu Ingu-rugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak.

8.- Mailegu horiek bost urtean behin berrikusi behar ziren. 1992ko maiatzaren erdialdean automatikoki berriztatu ziren. Garai hartan kredituen interesen jaitsiera nabarmena zen, sinatu ziren ordukoekin alderatzen baditugu (% 12,375tik % 6,2ra gutxi gora behera), zergatik Nafarroako Gobernuak ez zion negoziatutakoaren berri eman mailegu guzti horien onuradun orori?

1992ko mailegu koalifikatuak bi aldiz berrikusi behar dira.

– Bata, dirulaguntzarik gabekoen motakoa, automatikoa da 1997, 2002 eta 2007 urteetan. 1997koa guztiz zabaldua izan da komunikabideetan.

– Bestea bost urtean behin egiten da, mailegu bakoitzaren amortizazio-eparearen hasieraz geroztik. Kasu horretan, interesatu guztiak jartzen dira jakinaren gainean, beren egoera ekonomiko berriari dagozkion egiaztagiria aurkez ditzaten, eta hori dena ikusita erabakitzen da maileguei diruz laguntzen jarraitu ala ez.

9.- 1993an sinatutako komenioak bi alditan negoziatu ziren eta lortutako portzentaia txikiagoak izan ziren oraindik, % 6ko behetik geratu baitziren, zeintzuk dira departamentu horrek 1994an sinatutako koei buruz 1999rako dituen aurreikuspenak?

Berrikusiriko interes-tasa itundu egiten da berrikuspen-formularen arabera, berrikuspenaren aurreko 6 hilebeteetan interes-tasek izandako eboluzioa kontuan hartuta. Hori dela eta, 1994ko interes-tasak (1999an berrikusita) UTB % 5,5 ez gainditzea aurreikusita dago.

10.- Negoziazio horiekin Nafarroako Gobernuak diru askotxo aurreztu duenez (zenbait espedientetan 2 milioitaraino irits daitekeena), zenbatekoa da, orotara, 1992 eta 1993an aurreztutakoa?

Honekin batera doan taulan Nafarroako Gobernuarentzako gasturik txikiena azalduko dago (diruz lagundugabeko interes-tasei dagokienez), 1998ko ekainera arte, milioi pezetatan.

	1997	1998ko ekaina bitarte
1992ko hitzarmena	333	341
1993ko hitzarmena		263

11.- Aurrekontuetan Departamentuak egin dituen ajuste edo egokitzapenetan zertara bideratu da aurreztutako milaka milioi horiekin?

1997an, dirulaguntzak ordaintzea helburu duen kontusailaren aurrekontu-aurreikuspena ez da aldatu.

Karguaz jabetu zenez geroztik, Gobernuak etxebizitzentzako laguntzak etengabe hobetu ditu. Hona hemen zenbait adibide: babes ofizialeko etxebizitzetan, 70etik 90 m<sup>2</sup>-ra zabaldu ditu dirulaguntzak; etxebizitzak zaharberritzeko jarduketak diruz lagundu ditu, aurreko Gobernuak zorrotz

murritzu baitzituen dirulaguntza horiek 1996ko ekainean; lehenasunezko zaharberritze-inguruak eta zaharrentzako zein elbarrientzako etxebizitzak sustatu ditu batez ere; birgizareratze-programen barruan dauden pertsonentzako dirulaguntzak eman ditu, etxebizitza usatuak eskura ditzaten; eta jabetzako nahiz errentako etxebizitzetara erraz sartzeko baldintzak hobetu ditu.

12.- Maileguen interes jaitziera horien onuradunak izan beharko ziren nafar hiritarrek berdin jarraitzen dute, onuradun bakarra Nafarroako Gobernuak izan baita. Nork erabaki zuen interes tipo horien jaitziera Nafarroako Gobernuak apor-tzen zuen dirulaguntzari soilik aplikatu behar zitzaionik eta ez hiritar xumeei?

Dirulaguntzarik gabeko maileguak edota diruz lagundutako tasa altuko maileguak (adib. % 9koak) dituzten mailegariak, etekin zuzen-zuzena atera dute. Gainerako mailegariak (adib. lagundutako % 5eko tasa dutenek) zeharkako etekina atera dute, zorrak azkarrago amortizatu baitituzte interes-tasa beheratzearen ondorioz.

Maileguak aldatzeko mekanismoa alde aurretik finkaturik zegoen 1992 eta 1993ko xedapene-tan; beraz, indarra duten xedapenak ez betetzeko erabakirik ez da izan.

13.- Hiritarrentzat ez du jaitziera horrek eragin praktikorik izan; gertatutakoaren berri zuzena ez zaie eman; hurrengo bost urteetan gehiago amortizatuko dute baina azkenetan gutxiago; azken finean, aurrezki kutxek eta bankuek jasoko duten diru interes txikiagoa Nafarroako Gobernuak ordainduko ez duen dirulaguntza kopuru berbera da. Beste era batera esanda, bezeroaren kuota berdin jarraituko du. Ba al zekien hori Kontseilariak fidantza entitate horiekin interes tasaren jaitzieraren negoziazioak, Nafarroako Gobernuaren izenean, gertatu zirenean?

Kontseilariak, berrikuspen-formulak negoziatzerakoan, poz handia hartu zuen, % 10etik % 20ra bitarteko beherapena hitzartu zelako, hipoteka-maileguen interes-tasen eboluzioari dagokio-nez (eboluzio hori, gainera, aldekoa izan da). Horrek onura ekarri dio 1997 eta 1998an Foru Komunitateari.

14.- Zergatik erabaki zen horrela egitea, eta jaitziera hori hiritarren eta Gobernuaren artean ez erdibanatzea?

Lehen ere azaldu den bezala, jardunbide hori halaxe aurreikusita zegoen etxebizitza finantzatzeko hitzarmenak ituntzeko momentuan.

15.- Hori egiterakoan erabili ziren irizpideak ba al dira gaur egun Departamentu honek lan-ildo

edota ardatztat hartzen dituztenak, hau da, indarrean daudenak?

Hitzarturiko interes-tasako maileguen eta lagunduriko interes-tasako maileguen arteko amortizazio-kuotaren aldea gehi interesak ordaindu zituen, hain zuzen, Nafarroako Gobernuak.

16.- Ekonomi eta Ogasun Departamentua jakinaren gainean al dago? Eta Lehendakaritza?

Bai, halaxe da.

17.- Koalizioko gobernukideei horretaz ohartu zitzaien?

Aurreko koalizioko gobernua bazekien zein zen etxebizitzarentzako mailegu koalifikatuen mekanismoa.

18.- Azken erabakiaren erantzukizuna nork dauka?

1992az geroztik finantzaketari buruzko foru dekretuak atera dituzten gobernuek eta Nafarroako Parlamentuak, zeinak indarrean dagoen sistema ezarri baitu 14/1992 Foru Legean, abenduaren 21ekoan (11. art.), eta 15/1995 Foru Legean, abenduaren 29koan (14. xedapen gehigarria).

19.- Ba al dago, bitartean, hiritarrek bankuei ordaindu beharreko dirutza arintzeko aukerarik artean?

Aintzat hartu behar da ezen, mailegarien maileguek, zeinak noizetik noizera berrikusten baitira, arrazoizko interes-tasak dituztela, diruz lagunduta egon ala ez. Gainera, Departamentuak egindako azterketa baten arabera, Nafarroako hiritarrek beren babes ofizialeko etxebizitzetako kredituen truke ordaintzen dituzten interesak Espainiako baxuenak dira, Foru Komunitatean aurrera eramandako negoziazio eraginkorra dela medio.

20.- Baliteke entitate horiekin negoziatutakoa moldatzea edota aldatzea hiritarren onerako?

Lehenengo eta behin, berrikuspena hiritar mailegari guztientzat da onuragarria, bai zuzenean (kuota gutxiago), bai zeharka (kuota berdina baina amortizazio handiagoaz).

Garai batean negoziatutakoa, horretan parte hartu duten alde guztiek errespetatu behar dute. Eta berrikuspen-formula gaur egungo egoeran, garbi ikusi da guztiz dela Nafarroako interesen aldekoa.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 4an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Lurzoruaren eta Lurzati Antolamenduaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Lurzoruaren eta Lurzati Antolamenduaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Izquierda Unida - Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Ion Iñaki Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Lurzoruaren eta Lurzati Antolamenduaren Institutuak egin dituen iradokizunei buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Ingurugiro Ministerioko Ingurugiro Kalitate eta Ebaluaziorako Ataleko zuzendari nagusiak igorritako jakinarazpena jaso zen Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Egituren Zerbitzuan; eta gaiaren espezifikotasuna ikusita, zerbitzu honetako zuzendaritza harremanetan jarri zen Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiarekin.

Ziklo konbinatuko zentralaren eraiketa dela eta, antzeko erantzuna jaso zen ingurugiro gai horiei buruz Ingurugiro Zuzendaritza Nagusi honetan; eta nekazaritzako interesak kontuan izanda oztoporik ez zegoenez, horri buruzko gogoetak oro Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren erantzunetan ondo jasota zeudela erabaki zen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

## **Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentario jaunak Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nafarroako Gobernuko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1998ko uztailaren 6ko 54. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko irailaren 9an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

“Izquierda Unida - Ezker Batua de Navarra” Parlamentuko Taldeko Ion Iñaki Erro Armendáriz jaunak galdera egin du Castejónen gas naturaleko ziklo konbinatuko zentral bat jartzeko proiektuaren inguruan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin dituen iradokizunei buruz.

Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Ingurugiro Ministerioko Ingurugiro Kalitate eta Ebaluaziorako Ataleko Zuzendari Nagusiak igorritako jakinarazpena jaso egin zen; eta gaiaren espezifikotasuna ikusita, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua harremanetan jarri zen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarekin.

Ziklo konbinatuko zentralaren eraiketa dela-eta, antzeko erantzuna jaso zen ingurugiro gai horiei buruz departamentu honetan; eta nekazaritzako interesak kontuan izanda oztoporik ez zegoenez, horri buruzko gogoetak oro Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren erantzunetan ondo jasota zeudela erabaki zen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1998ko irailaren 7an.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

<p><b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b></p> <p><b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b></p> <p>Urte bat ..... 6.000 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 140 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 175 » .</p>	<p><b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p><b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b></p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------	-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------